



ZUZENBIDEKO GRADUA (BIZKAIKO ATALA)

IKD i³ Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikustegitik (IKDi³ 21-30)

GRADU AMAIERAKO LANA

**BEHIN-BEHINEKO NEURRI ZIBILEN
GARRANTZIA GENERO INDARKERIAN:
ERABATEKO BABESA DAUKATE?**

2021/2022 ikasturtea

EGILEA: LEIRE MORATO HERRERA

ZUZENDARIAK: IRANTZU BERIAIN FLORES ETA GARAZI ARRAIBI LARREA

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK

Jakin badakigu, azken urteotan emakumeen aurkako indarkeria pil-pilean dagoen gai bat dela eta emakumea soilik izateagatik pairatzen den indarkeria gero eta anitzagoa dela eta pisu handiagoa duela gure gizartean. Horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honen helburua da arlo zibilaren ikuspuntutik genero indarkeriaren biktimen babesak nolako den aztertzea, izan ere, emakumea zein bere kargura dauden adingabeak erabat babesturik egoteko neurri penalez gain, neurri zibilak kontuan hartu behar dira. Horretarako, “*genero indarkeria*” kontzeptuaren inguruan sortutako zalantzak argitu dira eta jarraian, kasu erreal batetik abiatuz, zigor prozesuan zehar hartu daitezkeen kautelazko neurrien artean, Babes Agindua aztertu da. Zehazki, Babes Aginduaren bidez, “*bigarren mailako biktimizazioa*” saihestea lortu daitezkeen heinean, orden jurisdikzional penalaren eta zibilaren arteko koordinazioaren eta zigor prozeduran hartutako neurri zibilen gainean azterketa juridikoa egin da.

Hitz-gakoak: Genero indarkeria, Babes Agindua, bigarren mailako biktimizazioa, orden jurisdikzional penalaren eta zibilaren arteko koordinazioa, behin-behineko neurri zibilak.

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	6
II. LEHENENGO KAPITULUA: GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTURA HURBILTZEN.....	9
1.- GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ETA BERE ERREGULAZIOA: NAZIOARTEKO ARAUDIA, ISTANBULGO HITZARMENA, 1/2004 LEGE ORGANIKOA ETA EAE-KO 4/2005 LEGEA.....	10
2.- 1/2004 LEGE ORGANIKOAREN APLIKAZIO EREMUA.....	14
A.- Sexu bereko bikoteak aplikazio eremu horren barruan sartuko litzatekete?.....	15
B.- Zer gertatzen da genero indarkeriaren biktima transexuala denean?.....	16
C.- “Ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana, bizikidetzarik gabe ere” esamoldeak zer esan nahi du?.....	18
3.- ETXEKO INDARKERIAREKIKO ALDERAKETA: BAKOITZAREN APLIKAZIO ESPARRUA.....	20
III. BIGARREN KAPITULUA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ESKEINITAKO BABES JURIDIKOA ETA HAREN GABEZIAK: KASU ZEHATZ BAT ERREFERENTZIA GISA.....	24
1.- ZIGOR PROZEDURAN ZEHAR HARTUTAKO NEURRIAK: BABES AGINDUA.....	24
A.- Jatorria eta kontzeptua.....	25
B.- Faseak: Eskatera, entzunaldia eta ebazpena.....	27
C.- Babes Agindua emateko bete beharreko baldintzak.....	30
D.- Babes Aginduaren edukia.....	32
2.- BI ORDEN JURISDIKZIONALEN ARTEKO KOORDINAZIOAREN GARRANTZIA.....	34
A.- Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko sortutako orden juridikzionalen arteko koordinaziorako protokoloaren aplikazioa eta EAIEen eta Lehen Auzialdiko Epaitegien edo Familiako Epaitegien arteko eskumen gatazka.....	34
i.- Orden juridikzional penalak genero indarkeriarengatiko delitu baten existentziaren ezagutza duen kasuetan jarraitu beharreko irizpidea.....	36
ii.- Orden juridikzional zibilak genero indarkeriarengatiko delitu baten existentziaren ezagutza duen kasuetan jarraitu beharreko irizpidea.....	38
B.- Errealitate juridikoa: Orden juridikzionalen arteko koordinazio eta komunikazio falta.....	39
3.- ZIGOR PROZEDURA BATETIK ABIATUZ HARTU DAITEZKEEN BEHIN-BEHINEKO NEURRI ZIBILEN AZTEKETA JURIDIKOA: LEGEA ETA ERREALITATEA.....	41
A.- Guraso-ahalaren egikaritze partekatua.....	42
B.- Amaren aldeko semearekiko zaintza eskusiboa.....	44

C.- Bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimena etetearen aldeko neurria	47
D.- Amaren eta semearen familiaren etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleipena eta semearekiko mantenu-pentsioa.....	50
IV. ATERATAKO ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.....	53
V. BIBLIOGRAFIA EUSKARRIAK.....	56
1.- ARAUBIDEA.....	56
2.- DOKTRINA ETA WEB ORRIAK.....	58
3.- JURISPRUDENTZIA.....	63

LABURDURAK

AGA	Auzitegi Goreneko Autoa
AGE/ AG	Auzitegi Goreneko Epaia/ Auzitegi Gorena
art.	Artikulua
BA	Babes Agindua
BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa
DBEL	Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legea
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EAIIE	Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegia
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EFNZ	Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Zirkularra
GIAOOBENLO	Genero Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko Lege Organikoa
KAIE / KA	Konstituzio Auzitegiko Epaia/ Konstituzio Auzitegia
KZ	Kode Zibila
LO	Lege Organikoa
PAA	Probintzi Auzitegiko Autoa
PAE/ PA	Probintzia Auzitegiko Epaia/ Probintzia Auzitegia
PKL	Prozedura Kriminalaren Legea
OJ	Oinarri Juridikoa
or./orr.	orrialdea(k)
ZK	Zigor Kodea
Zit	Zitatutako obra

I. SARRERA

Haurraren hilketa Suecan, "Sistemaren akats nabarmena"

Jordiren kasuak¹, bere aitak erail zuen umearena, genero indarkeriatik kondenatua izan zena, guztiz harrিতuta utzi ninduen. Albistearen berri izan bezain laster, hainbat galdera etorri zitzaizkidan burura: nola posiblea da horrelakorik ematea? Nola aukeratu zen zaintza partekatua hilabete lehenago genero indarkeriatik kondenatua izan bazen? Prozedimenduaren akats bat izan zen edo zigor-arloko prozesu batean neurri zibilen erregimena ez al da nahikoa?

IKDi3 (emakumearen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, disziplina arteko ikuspegitik) proiektuari esker aukera izan dut genero indarkeriaren inguruan nire Gradu Amaierako Lana prestatzeko eta Jordiren kasua bezalako kasuren bat aztertzeko eta galdera horien erantzuna bilatzeko. Gainera, proiektu honek ilusio handia sortarazi dit, emakumearen aurkako indarkeria emakumeok geure azalean bizi ahal dugun fenomeno delako. Aurten martxan jarri den proiektu honen ildora, genero indarkeriaren problematika disziplina ezberdinetatik aztertu dugu, proiektuan egon garenok gure artean gaien arteko lotura bat sortaraziz.

Jakin badakigu, genero indarkeria arlo pribatua gainditzen duen arazoa izanik, gure gizartearen gaitzik larrienetako bat bilakatu dela, botere publiko guztien erantzun integrala behar duena eta hainbat diziplinen ikuspuntutik aztertua izan behar dena². Horregatik, Gradu Amaierako Lana genero indarkeriaren azterketara bideratu nahi izan dut, ikuspegi zibiletik, arlo prozesala eta penala ezinbestekoa izan bada ere, hain zuzen ere. Ezaugarri horietako bat gertatzen denean zigor eremuari bakarrik erreparatzen diogulako. Hala ere, zigor-arloko prozesu bat hasten denean, kautelazko neurri penalak hartzeaz gain, emakumeari babes integrala emateko behin-behineko neurri zibilak hartzeko beharra dago, Jordiren kasuan gertatzen den moduan. Hori dela eta, ideia ona

1 Ez da kasu bakarra, berarekin bat beste 46 ume erailduak izan dira genero indarkeriaren alorrean, 2013urtetik aurrera. Ikusi LÓPEZ TRUJILLO, Noemi: "Menores asesinados por violencia vicaria: de 47 víctimas, en 12 casos había denuncia previa", Newtral, 2022. Eskuragarri hemen: <https://www.newtral.es/menores-asesinados-violencia-vicaria-denuncia-previa/20220405/>

2 GIMENO REINOSO, Beatriz eta BARRIENTOS SILVA, Violeta: "Violencia de género versus violencia doméstica: La importancia de la especificidad", *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, 2009, 1.-2 orr.

iruditu zait genero indarkerian hartu daitezkeen neurri zibilen inguruan nire lana kokatzea.

Lana bi kapituluetan banatuta dago. Lehenengo kapituluaren abiapuntua genero indarkeriaren kontzeptua zehaztea izan da. Horretarako, lehenik eta behin, Nazioarteko Legedia, Istanbulgo Hitzarmena, 1/2004 Lege Organikoa eta EAeko 4/2005 Legea aztertu dira, horiek emakumearen kontrako indarkeriaren kontzeptua nola definitzen duten jakiteko. Gero, ikusi izan dugu 1/2004 LOak, beste Legeak ez bezala, genero indarkeriaren eremuan kontzeptu murriztagoa hartzen duela. Ildo horretan, kapitulu honen bigarren urratsa izan da berak emandako kontzeptuaren gainean aplikazio eremua zein den zehaztea, sexu bereko bikoteak, transexualak eta Legez arautu gabeko bikoteak sartzen diren edo ez azalduz. Azkenik, etxeko indarkeriarekin azaleko alderaketa gauzatu da, bereziki subjektuak bereizteko eta eremu prozesalean dauden ezberdintasunak ulertzeko.

Bigarren kapituluaren abiapuntua kasu erreal bat aztertzea izan da, zeinetan gizona bere bikotekidea erailtzen saiatzen den, euren 2 urteko umearen aurrean. Honako kasua hartzea erabaki dut, ez kasua berezia delako, baizik eta nire helburua delako genero indarkeriaren alorrean kasu erreal bat erreferentzia gisa izanda, emakumea erabat babestuta egoteko jarraitu beharreko prozedura eta hartutako neurri zibilen edukia aztertzea. Zentzu horretan, hiru puntutan banatu dut kapitulu hau.

Lehenengo eta behin, Babes Aginduaren (aurrerantzean, BA) sakonera txikiko analisi bat gauzatu dut, izan ere, BAren barne zigor arloko neurrietaz gain, neurri zibilak finkatzen dira. Horretarako, BAaren kontzeptua eta onartzeko baldintzak aztertu ondoren, izan dezakeen edukia aztertzer mugatu naiz. Bigarrenik, aurreko eremuak finkatuta, bi orden juridikzionalen arteko koordinazioaren azterketan sakondu dut, Jordiren kasuaren analisiaren bitartez sistema judizialak duen gabezia agerian utziz. Azkenik, bigarren kapitulurako hautatutako kasuan adostutako neurri zibilen azterketa juridikoa gauzatu egin da, zeinetan, guraso-ahalaren etendura; zaintza eta jagoletzaren esleipena; bisita-,egonaldi- eta komunikazio- erregimena; familia-etxebizitzaren gozamina eta erabileraren esleipena; eta azkenik, semearekiko mantenu-pentsioa aztertu dira banan-banan.

Azkenik, ondorio eta proposamenetan hiru gauzetan zentratu naiz: genero indarkeriaren kontzeptuaren zabalkuntzan; bi orden jurisdikzionalen arteko komunikazioa hobetzearen aldeko jarreretan; eta bisita-erregimenaren etenduraren lehentasuna errealitatera eraman nahi izatean.

II. LEHENENGO KAPITULUA: GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTURA HURBILTZEN

Jakin badakigu, emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak ez dela soilik Espainiara mugatzen, indarkeria mota hori planetako emakume gehienei eragiten dien «nazioarteko epidemia» dela baieztatzen den heinean³. Gainera, indarkeria matxistaren biktimen zenbakia areagotu da gai pribatu bat izateari utziz eta egun gizarteari eragiten dion arazo batean bilakatuz; hori dela eta, munduko feminismoarentzat berebiziko lehentasun bihurtu da⁴.

Ildo horretan, ezin dugu ahaztu “*genero indarkeria*” esamoldearen erabilera emakumeen aurkako tratu txarren errealitatea onartzea bezain berria izan zela⁵. Izan ere, ez gaude kriminalitate mota berri baten aurrean, emakumeen aurkako indarkeriarekiko sentsibiltate sozial berezi baten sorreran baizik⁶. Emakumearen aurkako indarkeria aspalditik existitu bada ere, hamarkada askotan zehar emakumeen aurkako indarkeria fenomeno ikusiezina izan da eta ez du interes sozialik eta juridikorik piztu, tradizioz emakumearentzat gordetako rola dela eta⁷.

Hori dela medio, MARUGÁN PINTOSek eta VEGA SOLISek dioten bezala, ez da harritzekoa bere arazoak ez ohartzea eta duela gutxira arte ez kezkatzea. Kontuan izan behar dugu bizi garen gizartea belaunaldiz belaunaldi aldatzen doala eta denborak aurrera egin ahala, balioak, kultura, oinarrizko eskubideak... moldatuz joan direla. Horren ondorioz, egun emakumearen rola jasandako aldaketekin bat, eta horren ondoriozko gizarte-balorazioarekin, gizonen jokabide jakin batzuk onartezin bihurtu dira⁸.

3 MARÍ FARINOS, Enrique: “La lucha contra la violencia de género en el derecho comparado, con especial referencia a Europa”, *Diario La Ley*, 9128. zk., 2018, 1.or.

4 GIMENO REINOSO, Beatriz eta BARRIENTOS SILVA, Violeta: “Violencia de género...”, zit., 1.-2 orr; ARANDA RODRIGUEZ, Remedios: “Medidas civiles contra la violencia de género en la L.O. 1/2004”, *Revista Jurídica de la Universidad Autónoma de Madrid*, 17. zk., 2008, 11-12. orr.

5 MAQUEDA ABREU, María Luisa: “La Violencia de Género: Entre el concepto jurídico y la realidad social”, *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 08-02. zk, 2006, 2. or.

6 MARÍ FARINOS, Enrique: “La lucha contra...”, zit., 2.or.

7 MONTALBAN HUERTAS, Inmaculada: “Violencia y género. La violencia doméstica como problema actual, estructura y público para el derecho”, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (ed.), *Encuentros “Violencia doméstica”*, Madril, Dijusa, 2004, 36.or.

8 MARUGÁN PINTOS, Begoña eta VEGA SOLÍS, Cristina: “Gobernar la violencia: apuntes para un análisis de la rearticulación del patriarcado”, *Revista Política y Sociedad*, 2001, 422. or.

1.- GENERO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ETA BERE ERREGULAZIOA: NAZIOARTEKO ARAUDIA, ISTANBULGO HITZARMENA, 1/2004 LEGE ORGANIKOA ETA EAE-KO 4/2005 LEGEA

XX. mendea oso aurreratuta egon arte, ez da inolako erreferentzia zehatzik edon nazioarteko zein estatuetako testuetan indarkeria mota espezifikoko horri buruz. Hain zuzen ere, 90. hamarkadan ezarriko da genero indarkeriari buruzko tratamendu espezifikoa nazioarteko lege testuetan⁹, hala nola, **Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen 1993ko abenduaren 20ko Adierazpenean** (Nazio Batuen batzar Nagusiaren 49/104 Ebazpena) eta **1995eko Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian**.

Alde batetik, Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen 1993ko abenduaren 20ko Adierazpenak lehen aldiz berariaz definitzen du emakumearen aurkako indarkeria *“emakumearen aurkako indarkeria, historian zehar, gizonaren eta emakumearen artean ezberdinak izan diren botere harremanen adierazpena dela, eta horiek ekarri dutela emakumea menpean egotea eta gizona ren aldetiko diskriminazioa izatea, era berean, haren aurrerabidea eragotziz, eta orobat, emakumearen aurkako indarkeria gizartearen oinarrizko tresna dela, horren bitartez emakumea behartu egiten dela gizonarekiko mendekotasun egoera horretara”*¹¹. Horrekin batera, Emakumeari buruzko Laugarren konferentzian azpimarratzen da emakumeen aurkako indarkeria oinarrizko eskubideen bortxaketa suposatzen duela, berdintasun, garapen eta bake helburuak lortzeko oztopo bihurtuz¹².

9 Hala ere, ezin dugu ahaztu lege horiekin batera beste aurrekari aipagarri batzuk daudela, non genero indarkeria zehaztugabeko emakumearen aurkako diskriminazio-modu bat bezala jasotzen den. Horien adibide dira: 1945ko ekainaren 26ko Nazio Batuen Gutuna; 1948ko abenduaren 10ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 217 A (III) ebazpena; eta Emakumearen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko 1979ko abenduaren 18ko Konbentzioa (Espainiak 1983ko abenduaren 16an berretsia, EAO 69. zk, 1984ko martxoaren 21koa).

10 MAQUEDA ABREU, María Luisa: “La Violencia de Género...”, zit., 2.or.

11 Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen 1993ko abenduaren 20ko Adierazpenarena (Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Ebazpena).

12 Emakumeari Buruzko Laugarren Munduko Konferentziaren 1995eko urriaren 17ko Txostena (A/CONF. 177/20).

Bestalde, Europa mailan, **Emakumeen Aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeari eta Borrokatzeari Buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmena**¹³ (aurrerantzean, Istanbulgo Hitzarmena) aipatu beharra dago. Izan ere, gogoan eduki behar dugu, genero indarkeria kontzeptua ez zegoela oso ondo definitua eta horregatik, Europako estatu bakoitzak modu batean definitzen zuela indarkeria mota hori¹⁴. Beraz, araudi juridikoa harmonizatzeko beharrarekin Istanbulgo Hitzarmena sinatu zen, Europako eremuan genero indarkeriaren aurka borrokatzeko tresna juridiko garrantzitsuena bilakatuz¹⁵.

Bere helburuen artean daude emakumeen aurkako indarkeriarik eta etxeko indarkeriarik gabeko Europa sortzea; indarkeria mota horiek ezabatzea laguntzea; emakume guztiak genero indarkeriatik eta etxeko indarkeriatik babestea eta, Europa mailan emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptuarekiko esparru globala eratzea.

Hori kontuan izanda, Istanbulgo Hitzarmenak honela ulertu du emakumeen aurkako indarkeria: *“se deberá entender una violación de los derechos humanos y una forma de discriminación contra las mujeres, y se designarán todos los actos de violencia basados en el género que implican o pueden implicar para las mujeres daños o sufrimientos de naturaleza física, sexual, psicológica o económica, incluidas las amenazas de realizar dichos actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad, en la vida pública o privada”* (3.a) art). Gainera, nahiz eta definizioan ez agertu zio adierazpenetan emakumearen aurkako indarkeria emakumearen eta gizonaren arteko desoreka historikoaren adierazpen bat dela onartzen da, gizonak emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa.

Azkenik, Espainiar Estatuan, Istanbulgo Hitzarmenari atxikimendua eman baino lehen, **Genero Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko**

13 Emakumeen Aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeari eta Borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmena, EAO 137. zk., 2014ko ekainaren 6koa.

14 GALLEGO SÁNCHEZ, Gemma: “El Convenio de Estambul. Su incidencia en el sistema español de lucha frente a la violencia contra la mujer”, *El derecho.com*, 2015. Eskuragarri hemen: <https://elderecho.com/el-convenio-de-estambul-su-incidencia-en-el-sistema-espanol-de-lucha-frente-a-la-violencia-contra-la-mujer-2>

15 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior del menor y las medidas civiles a adoptar en supuestos de violencia de género*, Madril, Dykinson, 2016, 20.or; VENTURA FRANCH, Asunción: “El CE y los sujetos de la violencia de género. El cuestionamiento de la violencia doméstica como categoría jurídica”, UNED. *Revista de Derecho Político*, 97. zk., 2016, 182. or.

abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa¹⁶ (aurrerantzean, GIAOOBENLO) sinatu zen.

Lege horren zio adierazpenetara bagoaz, ikus dezakegu genero indarkeria gure gizartean dagoen desberdintasunaren sinbolorik basatiena dela, emakume soilik izateagatik emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria, alegia. Legeak gehitzen du gizarte-rolen edo kultura-jarraibideen banaketa desorekatuen ondorioz gizonak emakumearekiko duen kontrol- eta nagusitasun-harremanetan duela bere jatorria.

Gero, bere 1.1. artikulua, genero indarkeriari buruzko Espainiako lehen lege-definizioa ezartzen du. Horren arabera, emakumeen aurkako indarkeria edo genero indarkeria dago *“indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun- egoeraren eta gizonak emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa”*.

Hala ere, kontuan izan behar dugu “genero indarkeria” kontzeptua ez dela bera Espainiako Autonomia Erkidego bakoitzean. Gure Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dugu¹⁷. Lege horren helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan printzipio orokor batzuk ezartzea eta horretaz gain, neurri batzuk ezartzea berdintasun hori lortzeko eta egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro ezabatzeko. Ideia horrekin, berriki aldatu da legea Martxoaren 3ko 1/2022 Legearekin eta horren bidez, matxismoa, emakumeen aurkako indarkeriaren funtsezko kausa gisa irudikatu nahi da, testuan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptua sartzearen alde egiten¹⁸.

16 Genero Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 LO, EAO 313. zk., 2004ko abenduaren 29koa.

17 Euskal Autonomia Erkidegoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EHAA 42. zk., 2005eko martxoaren 2koa.

18 Horren bidez, otsailaren 18ko 4/2005ko Legearen izenburua aldatzen da “Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legea”-ra. Honela geratzen da 1. art: *“Lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonak aukera eta tratu berdina izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduak bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa*

Beraz, GIAOOBENLO Istanbulgo Hitzarmenarekin edo Nazioarteko Legediarekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu bat datoztela adieraztean emakumearen aurkako indarkeria emakumearekiko diskriminazioaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonen emakumeekiko dituzten botere-harremanen adierazletzat hartzen dela. Izan ere, emakumearen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen artean historikoki mantendu izan den desberdintasunaren ondorio bat da, bere sustraiak emakumeari esleitutako gizarte-eginkizunaren kontzepzioetan hondoratzen dituena; genero femeninoa diskriminatzen duen gizarte bati dagozkionak, hain zuzen ere¹⁹.

Hala ere, doktrinaren zati handi baten aburuz, Espainiar Estatu mailan emandako GIAOOBENLO horretan ez da jasotzen genero indarkeriari aurre egiteko babes integral bat. Emakumeen aurkako indarkeriak bere baitan hartzen ditu ez bakarrik bikotearen esparruan emakumearen kontra gertatzen den indarkeria (fisikoa, sexuala eta psikologikoa), baizik eta edozein esparruan, eta edozein izanda erasotzailea eta eraso mota (fisikoa, sexuala edota psikologikoa), emakume baten aurka eragindako indarkeria; honen baitan, beraz, sexu-erasoak, jazarpena, sexu-larderia eta prostituzioa ere sartu beharko lirakeke²⁰.

Zentzu honetan, Istanbulgo Hitzarmenak eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen duten definizioa zabalagoa da, nazioarteko

sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela. Azken batean, gizarte berdinazale eta indarkeria matxistarik gabeko bat lortu nahi da, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat, non berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonen dituzten portaerak, jomugak eta beharrianak". Gehiago sakontzeko: UPV/EHU-IVAP.: *Marco normativo, derechos de las mujeres víctimas, servicios y recursos*, 2022, 29.or.

19 MAGARIÑOS YÁNEZ, José Alberto: *El derecho contra la violencia de género*, Madril, Montecorvo, 2007, 17. or.

20 FUENTES SORIANO, Olga: *El Enjuiciamiento de la violencia de género*, Madril, Iustel, 2009, 24. or.; BROX, SÁENZ DE LA CALZADA, Alicia Ginebra: "El Convenio de Estambul en Francia y en España: tareas pendientes", *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 43. zk., 2020, 51.or.; YUGUEROS GARCÍA, Antonio Jesús: "La violencia contra las mujeres: conceptos y causas", *Revista Barataria Castellano-Manchega de Ciencias sociales*, 18. zk., 2014, 150. or.; PERAMATO MARTÍN, Teresa: "La Violencia de Género como manifestación de desigualdad. Ley Integral" *Curso: mujer, igualdad y derecho*, Centro de estudios jurídicos, Madril, 2007, 7. or.

legedieek ematen duten kontzeptua jarraiki. Kasu honetan, Istanbulgo Hitzarmenak emakumeen aurkako indarkeria ez du bikote eremura mugatzen²¹.

Ni, Istanbulgo Hitzarmenak proposatzen duen emakumeen aurkako indarkeria kontzeptuarekin bat nator. Zentzu honetan, nire aburuz, Espainiak bere legeria Istanbulgo Hitzarmenak ezartzen duenera egokitu beharko luke, Espainiak berretsi ondoren, eta Espainiako Konstituzioaren 10.2. artikulua kontuan izanik, Hitzarmen horren arabera interpretatzeko betebeharra daukalako²². Hala ere, GIAOOBENLOk bikotekidearen esparruan gizon batek emakume bati egiten dion indarkeriaren aurka jardutea du helburu, zio azalpenetan azaltzen den bezala, erasoak batez ere esparru honetan gertatzen baitira. Aitzitik, genero indarkeria bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka gertatzen dena bakarrik kontsideratzea akats larria da. Izan ere, berdin babestu beharko litzateke, esaterako, gizonak bere nagusitasun-posizioa baliatzen duenean bere langilea (emakumea dena) jazartzen duenean. Hortaz, GIAOOBENLO honek zabaldu egin beharko luke, emakume guztiak babesteko, genero indarkeriaren definizioa.

Edozelan ere, beharrezkoa da legearen azterketa sakona egitea, berau ondo ulertu eta egin daitezkeen gogoeta eta proposamenak arrazoitzeko helburuarekin. Horretan datza ondorengo azpiatalak.

2.- 1/2004 LEGE ORGANIKOAREN APLIKAZIO EREMUA

GIAOOBENLO-ren 1.1. artikulua aplikazio eremuak, bere horretan ere, zalantza asko planteatu izan ditu. Horren ondorioz, komenigarria da argi uztea zein subjektu sartzen diren. Lehendabizi, definizio horretan emakumeen aurka ematen den indarkeria dela argi uzten du, emakume horien ezkontide direnen edo izan direnen, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenen edo izan dituztenen aldetik (nahiz eta elkarrekin ez bizi), hain zuzen ere. Honek, zenbait galdera planteatu ditzake.

21 VENTURA FRANCH, Asunción: “El CE y los sujetos...”, zit., 204-205. orr. Hala ere, egia da Istanbulgo Hitzarmenaren artikulua horrek ez duela indarkeria horren aplikazio eremu subjektiboa definitzen, baina uler dezakegu zio adierazpenak ikusita erasotzailea gizona dela eta biktima emakumea, beraien arteko erlazioa zein den kontuan izan gabe.

22 Espainiako Konstituzioa, EAO, 1978ko abenduaren 29koa. Honako hau adieratzen du EKren 10.2. art: “Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere”.

A.- Sexu bereko bikoteak aplikazio eremu horren barruan sartuko litzatekete?

Egia da, sexu bereko bikoteen artean indarkeria kasuak badaudela, zeinetan batzuetan bietako batek bestea menderatzen duen, beraien erlazioan hartu duten rola dela eta. Horrek suposa dezake, genero indarkeriaren kasu baten aurrean gaudela²³. Hala ere, argi izan behar dugu GIAOOBENLO aplikatzeko irizpideei buruzko uztailaren 18ko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren (aurrerantzean EFN) 4/2005 Zirkularrak dioen moduan, 1/2004 LOri jarraiki, sexu bereko bikoteak babes bereziko eremutik kanpo geratu direla²⁴.

Izan ere, aurretik ikusi dugunez, legegileak GIAOOBENLOrekin emakumeari babes berezia eman nahi izan dio gizon-emakumeen familia-eremuan, emakumearekiko betidanik egon den diskriminazioaren eta desberdintasunaren ondorioz. Gainera, Legearen 1. artikulua argi uzten du sexu bereko bikoteak baztertuta geratuko liratekeela, ez delako betetzen erasotzailea gizona eta biktima emakumea izan behar duen subjektuaren baldintza. Ildo hori jarraituz, doktrinaren eta jurisprudentiaren²⁵ arabera, sexu bereko bikoteak ez dira Lege horren aplikazio eremuan sartuko. Izan ere, genero indarkeriaren esanahia ezartzean, generoak familiaren egituran izan duen eraginetik abiatuz, betidanik emakumeei generoan oinarriturik esleitu zaien rolarengatik dagoen indarkeriaren aurka egitea duelako xede LO horrek²⁶. Beraz, abiapuntu honetatik ez da posiblea sexu bereko bikoteak genero indarkeriaren lege-kontzeptuaren barruan integratzea.

23 PADILLA CONSUEGRA, Rocio: “La violencia en el interior de las relaciones lésbicas en los márgenes de la agenda política feminista del estado español: el estatuto subalterno de las mujeres lesbianas en la representación discursiva hegemónica de las violencias de género”, *Lecturas de nuestro tiempo*, IV. zk., 2019, 17. or.

24 GIAOOBENLO aplikatzeko irizpideei buruzko uztailaren 18ko EFNren 4/2005 Zirkularra (LEG 2005\9734).

25 AGE 2009ko azaroaren 4koa (RJ 2009\589); AGE 2012ko martxoaren 6koa (RJ 2012\3794): “*Estas reflexiones no deben hacernos perder de vista que la norma cuestionada aquí es la circunstancia de parentesco y que por tratarse de una pareja homosexual --dos hombres--, se está extramuros de todo supuesto de violencia de género, pues ese "género" es según la Ley única y exclusivamente la mujer, no pudiendo ser víctima el hombre.*”

26 GIMENO REINOSO, Beatriz eta BARRIENTOS SILVA, Violeta, “Violencia de género...”, zit., 12.or; MAGRO SERVET, Vicente: “Inexistencia de violencia de género en las agresiones en parejas homosexuales”, *La Ley Penal: Revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 138. zk., 2019, 2.or.

B.- Zer gertatzen da genero indarkeriaren biktima transexuala denean?

Galdera hori erantzuteko, lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu zeri deritzogun transexuala izatea. Horretarako, Espainiar Estatu mailan zein Euskal Autonomia mailan dugun legedira joko dugu. Estatu mailan, Pertsonen Sexuari Buruzko Aipamenaren Erregistro-Zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 LO dugu²⁷. Legeak ez du zuzenean definiziorik jasotzen, bere helburua Erregistro Zibilean jaso beharreko aldaketak egiteko beharrezkoak diren betekizunak finkatzea baita. Hala ere, Legearen zio-azalpenei erreparatuz, azpimarra daiteke transexualitatea genero-identitatearen aldaketatzat jotzen dela, legegilearen erantzuna behar duen errealitate sozialtzat, alegia.

Lege horren 4. artikuluari jarraiki, Erregistro Zibilean aldaketa eraginkorra izateko zenbait baldintza beharrezkoak dira: sexua aldatzeko ebakuntza kirurgikorik egin beharrik gabe, genero disforiako diagnostiko bat nahikoa izango da, mediku txosten baten bidez frogatuko dena eta gutxienez, bi urteko iraupena duen tratamendua aurrera eramatea eskatuko da²⁸. Beraz, Lege honek ez du onartzen pertsonaren autodeterminazioa; transexuala zarela onartzeko nahitaezkoa da baldintza horiek betetzea²⁹.

Euskal Autonomia Erkidego mailan, aldiz, Transexualak Genero-Identitateagatik Ez Baztertzeari eta Haien Eskubideak Aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea dugu³⁰. Horren arabera, *“Transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona bati jaiotzean jarri zitzaion sexua ez datorren bat sentitzen duen eta berea dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da*

27 Pertsonen Sexuari Buruzko Aipamenaren Erregistro-Zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 LO, EAO 65. zk., 2007ko martxoaren 16koa.

28 AGE 2007ko irailaren 17koa (ROJ: STS 5818/2007). Honako hau lehenengo epaia izan zen sexua Erregistro Zibilean aldatzeko baimena eman zuena, aurretik sexua berresleitzeko ebakuntza kirurgikorik egin gabe.

29 Los derechos paso a paso: Transexualidad, *Justizia.eus*, 2019. Eskuragarri hemen: <https://www.justizia.eus/noticias/los-derechos-paso-a-paso-v-transexualidad-3>

30 Euskal Autonomia Erkidegoa. Transexualak Genero-Identitateagatik Ez Baztertzeari eta Haien Eskubideak Aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea, EHAA 132. zk., 2012ko uztailaren 6koa.

diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik”(3. art)³¹.

Ikus dezakegu nola bi Legeen artean desberdintasun nabarmen bat dagoela, izan ere, Espainiar estatu mailan dagoen LOren 4. artikulua transexuala den pertsona legez aitortzeko zenbait baldintza jartzen dituen heinean, EAeko legeak azpimarratzen du pertsona bat transexuala dela egiaztatzeko ez dela beharrezkoa hori diagnostikatzea, nahikoa dela pertsona hori nola sentitzen den entzutea. Hala ere, argi izan behar dugu, Lege honen asmoa transexualitatearen izaera zehaztea dela, zalantzan jarri gabe, agerikoa denez, Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluari jarraiki, Estatuak eskumen eskusiboa duela Erregistro Zibilaren arloan. Euskal Legeak transexuala nor den zehazten du eta hori nola egiaztatzen den adierazten du. Modu honetan ahalbidetzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenaren eremuan dauden materietan (lana, osasuna, hezkuntza, besteak beste) transexualen eskubideen aitortzea eta egikaritzea.

Aurrekoa kontuan hartuz ezinbestekoa zaigu planteatzea transexual baten aurkako indarkeria GIAOOBENLOren aplikazio-eremuan sar daitekeen edo ez. Uztailaren 18ko EFNren 4/2005 Zirkularren arabera, genero indarkeriaren biktima diren emakume transexualak GIAOOBENLOren aplikazio-eremuan sartuko dira, beti ere sexua aldaketa Erregistro Zibilean inskribatua izan bada. Auzitegi gehienek jarraitu duten bidea ere honako hau da³².

Hala ere, aurreko iritzi hori ez da praktikan jarraitzen den bakarra. Izan ere, Erregistro Zibilean sexu aldaketa eskatu ez bada ere, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez, Fiskaltzaren Jarduera-Unitate Espezializaturako Irizpideei buruzko azaroaren 2ko EFNren 6/2011 Zirkularri jarraiki, interpretatu dezakegu emakume kondizioa duen edo ez baieztatzeko, auzitegiko medikuen eta psikologoaren txostenak erabili ahal direla. Zirkular honen arabera, genero femeninoarekiko identifikazioa modu

31 Adierazitako artikulua ekainaren 27ko 9/2019 Legearen bidez aldatua izan da; izan ere, aldaketaren aurretik 3/2007 LOak eskaintzen zuen definizio bera ematen zuen. Aldaketa *EHAA* 129. zk., 2019ko uztailaren 9koa.

32 Albaceteko PAE, 2006ko urriaren 30ekoa (ROJ: SAP AB 751/2006); Tenerifeko PAE, 2014ko azaroaren 28koa (ROJ: SAP TF 2307/2014); Bizkaiko PAA, 199/2010, martxoaren 8koa (JUR 399278). Lehenengo bi epaietan, sexu-aldaketa egin zen Erregistro Zibilean, eta, beraz, emakume transexuala genero indarkeriaren biktimatzat hartu zen. Azken autoan, aldiz, berretsi egiten da EAIEren eskumenaren errefusa, biktima emakumetzat ez hartzeagatik, oraindik ez baitzen egin erregistro-aldaketa.

iraunkorrean ematen dela frogatzeari jarri behar zaio arreta eta ez Erregistro Zibilean sexu-aldaketa eskatu den edo ez³³.

Auzitegiek gaur egun ez dituzte ezagutzen emakume transexualen kasu asko, eta 3/2007 LOri jarraiki genero indarkeriaren biktimatzat hartzeko, kasu gehienetan, Erregistro Zibilean jasotako aldaketa eskatzen dela. Baina, nire ustez, nahikoa izango litzateke emakume gisa identifikatzea, eta bere jokabide-rola zein rol emozionala emakumearena izatea, rol hori denboran mantenduz eta indarkeria gertatu den garaian emakumearen rola izanik. Izan ere, kasu batzuetan, konplexuak eta luzatuak izan daitezke sentitutako sexuarekiko identifikazio hori lortzeko egin beharreko izapideak. Beste batzuetan, arazoa larriagotzen da pertsona horiek atzerritarrak badira, konplexu egiten baitzaie Erregistro Zibilean aldaketa gauzatzea. Horrelako kasuetan, EFNren 6/2011 Zirkularrean adierazten den moduan bestelako baliabideak daude emakume kondizio hori baieztatzeko, hala nola, auzitegiko medikuen txostenak zein txosten psikologikoak.

C.- “Ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana, bizikidetzarik gabe ere” esamoldeak zer esan nahi du?

Esamolde horren bidez, legegileak erantzun egin nahi izan die harreman afektiboen edo bikote-harremanen eremuan genero indarkeriaren ageriko adierazpide diren indarkeria egoerei, elkarbizitza elementu hori falta zelako oraindik aintzat hartu ez zirenei³⁴. Garai batean bere garrantzia bazuen ere egitatezko bikoteen³⁵ eta legez arautu gabeko bikoteen

33 Emakumearen Aurkako Indarkeriari dagokionez, Fiskaltzaren Jarduera- Unitate Espezializaturako Irizpideei buruzko azaroaren 2ko EFNren 6/2011 Zirkularra (FIS-C-2011-00006). Interpretazio horren oinarria Malagako PAA, 2010eko maiatzaren 3koan (EFNren 6/2011 Zirkularretik hartua) dago.

34 TARDÓN OLMOS, María, “La interpretación de la análoga relación de afectividad, “aún sin convivencia””. III Congreso del Observatorio contra la Violencia Doméstica y de Género. Aplicación jurisdiccional, 2009, 3.or.

35 Egitatezko bikotei dagokionez, kontuan izan behar dugu Estatu mailan ez dagoela lege bat egitatezko bikoteen arauketa bateratua ezartzen duena bere edukia eta orduan, jurisprudenziaren bitartez zehaztu izan da, zeinetan **“relación de afectividad análoga a la conyugal” gisa definitu izan da, elkarbizitza ezinbesteko elementutzat joz**. Autonomia Erkidegoetan izatezko bikote bat izateko betekizun ezberdinak planteatu izan dira, 2000.urteetik aurrera, arlo publikoan zein pribatuan (zibila, bereziki) eskuduntza duten legegile autonomiko ezberdinek egitatezko bikoteen egoera arautzen dituzten Legeak onartu zituzten. Lege horietan izatezko bikoteen ezaugarriak eta eraketa-sistema finkatu zituzten. Azken eremu honi dagokionez, bikotearen eraketa formala edo egitatezkoa izan zitekeen. Hala ere, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiak hartu dituen erabakien arabera (KAE 93/2013 apirilaren 23koa, EAO 123. zk., 2013ko maiatzaren 23koa; KAE 81/2013, apirilaren 11koa, EAO 112. zk., 2013ko maiatzaren

arteko diferentzia kontuan izatea, esamolde honekin gauzak aldatu dira “ezkontzaren antzeko afektibitate-harremana” kontzeptuari “bizikidetzarik gabe ere” gehitzean.

Doktrinaren arabera, ezkontza-harremanarekiko asimilazio-mailan ez da neurtu behar elkarrekin bizitzeko proiektu bat dagoen ala ez, baizik eta egiaztatu behar da harekin partekatzen duela afektibitatearen izaera, hau da, adiskidetasun- harremanaren mugak gainditzen dituen, beraren intentsitatea edota berarekin igarotako denbora zein den axola gabe³⁶. Ildo horretan, adingabeen arteko harreman sentimentalak GIAOOBENLOren aplikazio eremuan sartuko lirateke³⁷.

Jurisprudentzia mailan, elkarbizitzaren elementua definiziotik kentzerakoan, emakumearen aurkako indarkeriaren barruan sartuko dira ez bakarrik bikote-harreman zorrotzak edo formalak, baizik eta maitasun- eta sexu-izaerako afektibitatean oinarritutako beste harreman sentimentalak ere 2011ko abenduaren 23ko 1376/2011 AGEN eta geroago, 2017ko urriaren 25eko 697/2017 AGEN adierazitakoaren arabera. Horietan, doktrinak dioenarekin bat, azpimarratzen da 1/2004 LOaren aplikazio eremuaren barruan egoteko ez dela hainbeste elkarrekin bizitzeko proiektu bat izateari begiratu behar ezta bikote horren arteko harremanaren intentsitateari, baizik eta adiskidetasun harreman bat gainditzen duen harreman baten aurrean gauden edo ez³⁸.

10koa; eta KAE 110/2016, ekainaren 9koa, EAO 170. zk., 2016ko uztailaren 15koa)) egitatezko bikoteei araudia ezargarria izateko beharrezkoa dela bikotearen eraketa formala; alegia, inskripzio bidez edo eskritura bidez bikotea eratzeke adostasuna adieraztea. Ikusi JIMENO ARANGUREN, Roldán: “Foru Berriaren konpilazio- edo kodetze-prozesuaren ebaluazioa: zuzenbidearen doktrina eta praxia”, *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, ISSN 1699-5376, 13. zk., 2016, 31-32. orr

36 TARDÓN OLMOS, María, “La interpretación de...”, zit., 4.or

37 JIMÉNEZ PEÑA, Sergio, “Las relaciones análogas al matrimonio y su incidencia en menores de edad en los delitos de malos tratos en el ámbito familiar (violencia de género)”, *Derecho por la vida*, 2016. Eskuragarri hemen: <https://derechoporlavid.com/2016/11/21/las-relaciones-analogas-al-matrimonio-y-su-incidencia-en-menores-de-edad-en-los-delitos-de-malos-tratos-en-el-ambito-familiar-violencia-de-genero/> [Azken kontsulta: 2022/04/26]

38 AGE 2011ko abenduaren 23koa (RJ 2012\1932). Honako hau dio: “*El grado de asimilación al matrimonio de la relación afectiva no matrimonial no ha de medirse tanto por la existencia de un proyecto de vida en común, con todas las manifestaciones que caben esperar en este, como precisamente por la comprobación de que comparte con aquel la naturaleza de la afectividad en lo que la redacción legal pone el acento, la propia de una relación personal e íntima que traspase con nitidez los límites de una simple relación de amistad, por intensa que sea esta*»; AGE 2017ko urriaren 25koa (RJ 2017\4785).

Hala ere, egon izan da, garai batean, bikote-harreman horretan gutxieneko sendotasuna eta etorkizuneko bokazioa eskatzen duen jurisprudentzia, hala nola, 2011ko abenduaren 14ko 1348/2011 AGE. Horren arabera, eskatzen da jarraitutasun-maila bat, elkarrekin bizitzeko proiektu serio bat erakusten duena, eta, bestetik, denboran irautea adierazten duen egonkortasun bat. Beraz, ezkondata dauden bikoteak eta izatezko bikoteak sartzen direla ikus dezakegu baina horietatik kanpo dauden bikoteen kasuan zenbait gauza demostratu beharko lukete³⁹. Auzitegi Gorenak honako epaia eman aurretik, bazeuden PA batzuk interpretazioa hori jarraitzen zutena, esaterako Madrilgo PAko 466/2007 epaia⁴⁰).

Bat nator ez lukeela halako garrantzia izan behar elkarrekin bizitzeko proiektuak, edo horren intentsitateak, baizik eta adiskidetasun-harreman hutsetik haratago doanak, gaur egun inguratzen gaituen errealitatea, bikote-harremanei dagokienez, aldatu egin baita iraganeko garaiekin alderatuta. Zentzu horretan, Auzitegiek eta autoreak egungo egoerara moldatu direla antzematen da.

3.- ETXEKO INDARKERIAREKIKO ALDERAKETA: BAKOITZAREN APLIKAZIO ESPARRUA

Genero indarkeriaren kontzeptua zein den aztertu ondoren, etxeke indarkeriaren kontzeptutik bereizi behar da; izan ere, 1/2004 LO indarrean sartu zenean, genero indarkeriaren kontzeptua bikotearen barruan mugatzeak, bi kontzeptu horien arteko nahasketak egotea eragin zuen⁴¹. Kontuan izan behar dugu GIAOOBENLOk emakumeen aurkako indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek adieraztean pentsa dezakegula genero indarkeria familia-tratu txarren beste kasu bat bezala kalifikatu daitekeela⁴².

39 AGE 2011ko abenduaren 14koa (ROJ: STS 9353/2011), 5. OJ: *“ha de acreditarse acudiendo a elementos y circunstancias externas que han de ser tratadas como indicios para considerar acreditada la estabilidad -por ejemplo, otorgamiento de contratos comunes de arrendamiento o adquisición de vivienda, otro tipo de negocios comunes, existencia de cargas asumidas por los dos, cambios recientes de residencia, cuentas bancarias compartidas, etc”*.

40 Madrilgo PAE, 2007ko ekainak 11koa (ROJ: SAP M 8424/2007)

41 YUGUEROS GARCÍA, Antonio Jesús: “La violencia contra...”, zit., 150. or.

42 LAURENZO COPELLO, Patricia, “La violencia de género en la Ley Integral: valoración político-criminal”, *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 07-08. zk., 2005, 2.or; MONTALBAN HUERTAS, Inmaculada, “Contra la violencia sobre la mujer”, *Revista El País*,

Hala ere, hori akats bat da, izan ere, GIMENO REINOSO eta BARRIENTOS SILVAren hitzetan edozein etxeko indarkeria genero indarkeria bezalakoa izan dadin nahi denean, batzuetan kontzienteki eta beste batzuetan inkontzienteki, genero indarkeriaren kontzeptua lausotu nahi da, eraginkorra izateari utziz⁴³. Ni bat nator hitz horiekin, etxeko indarkeriaren terminoak ez duelako bere osotasunean hartzen arazoaren larritasuna, arazo sozial bat barru-barruko eremura murrizten baitu, hura ezkutatzuz.

Bi indarkeria mota horien arteko bereizketarako ondorengoak aztertuko ditugu: subjektuak, ondasun juridikoa, prozedura judiziala eta lege-erregulazioa.

Subjektuei dagokienez, ANDALUZIAKO EMAKUMEAREN INSTITUTUAK adierazten duen bezala, etxeko edo familia barruko indarkeria familia-nukleoko kideen artean gertatzen dela kontuan izan behar dugu, aldez aurretik elkarrekin bizi direnean, biktimak gizonak zein emakumeak izan daitezkeelarik, hau da, indarkeria Zigor Kodearen 173.2 artikuluan jasotako pertsonen aurka gauzatzen denean emango dela⁴⁴. Beraz, ikus dezakegu etxeko indarkerian, genero indarkerian ez bezala, biktima berarekin bizi den familia-nukleoko edozein izan daitekeela baita bere bikotea, nahiz berarekin ez bizi. Hala ere, artikulua horrek argi uzten ez duen arren, bikoteei dagokionez ulertu behar da etxeko indarkeriaren eremutik kanpo uzten direla Zigor Kodearen 153. artikulua 1. paragrafoan aipatzen diren pertsona ofendituak, hau da, emaztea, emazte ohia eta emakumea, erasotzailearekin antzeko afektibitate-harremana izan badu edo hari lotuta badago, nahiz eta elkarrekin bizi ez⁴⁵.

Beraz, bikote homosexualen kasuan eta, heterosexualen kasuan, biktima gizona denean etxeko indarkeriaren aurrean egongo ginateke. Aldiz, erasotzailea gizona denean eta emakumea biktima, genero indarkeriaren barruan egongo ginateke. Horretaz gain, genero indarkeriaren biktimez ari garenean, kontuan izan behar dugu genero indarkeria oso fenomeno konplexua dela, eta beste pertsona batzuk inplikatzeko dituela, ez bakarrik biktima den emakumea. Haurrak genero indarkeriaren biktima zuzenak dira, tratu

2008.

43 GIMENO REINOSO, Beatriz eta BARRIENTOS SILVA, Violeta, "Violencia de género...", zit., 12.or

44 Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 LO, EAO 281. zk., 1995eko azaroaren 24koa.

45 Instituto Andaluz de la mujer, ¿Qué se entiende por Violencia Doméstica? Eskuragarri hemen: <https://www.juntadeandalucia.es/iamindex.php/1-violencia-de-genero/que-se-entiende-por-violencia-domestica> [Azken kontsulta: 2022/05/15]

txarrak jasaten dituzten emakumeen seme-alabek jasotzen dutelako beren amen aurkako indarkeria, haiek zuzenean fisikoki erasotuak izan diren edo ez alde batera utzita⁴⁶.

Hori guztia, batez ere, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legeak (aurrerantzean, DBEL)⁴⁷ eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 LOK⁴⁸ sartutako erreformen ondorio da. Azken honen bidez, adingabea zaugarritasun-egoeran dagoen eremu guztietan babestu nahi da, batez ere genero indarkerian. Horregatik, 8/2015 LOren azken xedapenetako hirugarrenak aldatu egiten du GIAOOBENLOen 1.2. artikulua, genero indarkeriaren biktima diren emakumeak, haien seme-alaba adingabeak eta haien tutoretza, zaintza eta babespeko adingabeak aintzat hartzeko⁴⁹. Aitorpen horrek gainditu egiten du GIAOOBENk zuzenean erasorik jasaten ez zuten adingabeentzat ezartzen zuen zeharkako biktimaren kontzeptua.

Era berean, ikus dezakegu **babestutako ondasun juridikoa ez dela berdina**; izan ere, etxeke indarkeriak familia-bakea babesten duen bitartean, genero indarkeriak balio erantsia kentzen dio emakumeari, pertsona gisa gutxiesten baitu⁵⁰. Gogoratu behar dugu, lehen esan bezala, etxeke indarkeriaren adierazpenek ez dutela errotze kultural hori, indarkeria mota horren emaitza ez dela patriarkatuaren oinarriean dagoen gizarte baten

46 ARANDA RODRIGUEZ, Remedios, “Medidas civiles contra...”, zit., 18.or.; VENTURA FRANCH, Asunción: “El CE y los sujetos...”, zit., 196. or; PERAL LÓPEZ, María del Carmen: *Madres maltratadas: Violencia vicaria sobre hijas e hijos*, Universidad de Málaga (UMA), 2018, 41. eta 44-45. orr; MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 23-27. orr.; FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madril, 2021eko azaroaren 15 eta 16, 10-12. orr.

47 Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legea, EAO 101. zk., 2015eko apirilaren 28koa. Lege horren 10. artikulua bidez genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabei, lege honen I. eta III. tituluetan aurreikusitako babes neurriak eskainiko zaizkie, horiek genero indarkeriaren biktima gisa kontsideratzen diren heinean.

48 Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 LO, EAO 175. zk., 2015eko uztailaren 23koa.

49 GIAOOBENLOen 1.2. art: “*Por esta ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a las mujeres, a sus hijos menores y a los menores sujetos a su tutela, o guarda y custodia, víctimas de esta violencia*”

50 PERAL LÓPEZ, María del Carmen: *Madres maltratadas: Violencia...*, zit., 30.or.

ondorioa, historikoki finkatutako kultura eta rol batzuen menpean dagoena, genero indarkeriarekin gertatzen den bezala⁵¹.

Egoera honen guztiaren ondorioz, genero indarkeriaren tratamendu prozesal hobea lortzeko, 1/2004 LOak arlo horretan espezializatutako **organo berri bat** sortu zuen: Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko auzi penalen instrukzioaz eta delitu arinen eta akordioak dauden kasuetan bere epaitzaz eta horrekin lotutako kausa zibilez arduratzen den Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Epaitegia (aurrerantzean, EAIE). Bestalde, etxeko indarkeriaz arduratzeko eskumena, gertaerak gertatu diren lekuko Instrukzioko Epaitegiei dagokie. Orduan, ikus dezakegu, organo jurisdikzional desberdinak direla eta subjektuak nortzuk direnaren arabera, organo eskumenduna bata edo bestea izango da. Hala ere, kontuan izan behar dugu bai genero indarkeriaren bai etxeko indarkeriaren biktimak babesteko tresna komun bat dagoela: Babes Agindua, hain zuzen ere (honako hau hirugarren kapituluan aztertuko dugu).

Eta, azkenik, **genero indarkeriaren lege-erregulazioa eta etxeko indarkeriarena desberdinak dira**, eta hori, aurretik aipatu dugun ZKren 153. artikuluan⁵² ikus dezakegu.

Laburbilduz, ikusi dugu nola Espainian genero indarkeriaren kontzeptua mugatuagoa dela, solik emakumea bere bikotea den edo izan denarengandik erasotua izan denean kontsideratuko delako genero indarkeria. Hori horrela, GIAOBENLOren aplikazio esparruari dagokionez hainbat subjektu (sexu bereko bikoteak, transesualak eta legez arautuak ez dauden bikoteak) sartzen diren edo ez ikusi dugu. Amaitzeko, etxeko indarkeriarekin alderaketa egitean, gainbat ezberdintasun aurkitu ditugu, aplikazio esparrua, ondasun juridikoa, organo eskuduna eta lege-erregulazioa, besteak beste.

51 Zentzu honetan, KAE 59/2008, maiatzaren 14koa, EAO 135. zk., 2008ko ekainaren 4koa (RTC 2008\59)

52 **ZKren 153. art.**: “1. *El que por cualquier medio o procedimiento causare a otro menoscabo psíquico o una lesión de menor gravedad de las previstas en el apartado 2 del artículo 147, o golpear o maltratar de obra a otro sin causarle lesión, cuando la ofendida sea o haya sido esposa, o mujer que esté o haya estado ligada a él por una análoga relación de afectividad aun sin convivencia, o persona especialmente vulnerable que conviva con el autor, será castigado con la pena de prisión de seis meses a un año [...] 2. Si la víctima del delito previsto en el apartado anterior fuere alguna de las personas a que se refiere el artículo 173.2, exceptuadas las personas contempladas en el apartado anterior de este artículo, el autor será castigado con la pena de prisión de tres meses a un año...*”

III. BIGARREN KAPITULUA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI ESKEINITAKO BABES JURIDIKOA ETA HAREN GABEZIAK: KASU ZEHATZ BAT ERREFERENTZIA GISA

Kasu zehatz bat abiapuntu hartuta, Estatuak genero indarkeriaren biktimak babesteko eman dezakeen erantzuna zein den ikustea da kapitulu honen helburua, eta horrekin batera, egungo sistema judizialak egoki funtzionatzen duen ala ez ezagutzea.

Azterketaren oinarri izango den kasuan, genero indarkeriako giza hilketa saiakera delitu baten egiletzat hartzen da gizona, eraso bere bikotekideari zuzenduta baitago, euren semearen aurrean⁵³. Zer nolako babes jasoko dute emakumeak eta umeak? Erabat babestuta egongo dira? Galdera horien erantzuna hurrengo puntuetan jorratuko da.

1.- ZIGOR PROZEDURAN ZEHAR HARTUTAKO NEURRIAK: BABES AGINDUA

2020ko abenduaren 19an, 407/2020 Aurretiazko Eginbideak ireki ziren Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. Zenbakiko Epaitegian, giza hilketa saiakera batengatik⁵⁴, genero indarkeriaren alorrean⁵⁵. Kasu honetan, akusatutako delituagatik entzunaldi bat ospatu zen, Prozedura Kriminalaren Legearen⁵⁶ (aurrerantzean, PKL) 505. artikulua eta PKLren 544 ter 4. artikuluari jarraiki. Beraz, Ministerio Fiskala, ikertua eta haren abokatu eta akusazio partikularreko abokatu bertan agertu ziren. Agerraldi horretan, akusazio partikularrak ministerio fiskalarekin batera, emakumea eta bien haurra behar bezala babesteko eska ditzaketen neurri guztien artean, fidantzarik gabeko behin-behineko espetxeratze neurria eskatu zuten (hori ez lortekotan urruntze-agindua

53 Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiko Autoa, 2020eko abenduak 21koa (486/2020 Aurretiazko diligentziak) eta Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiko 91/2021 Autoa, 2021eko maiatzaren 6koa.

54 2020ko abenduaren 17an gertatutako egintzengatik zeinak Durangoko Ertzaintzaren 2277/20 atestatuan biltzen den.

55 Izan ere, Durangon Lehen Auzialdiko eta Instrukziozko 4. Zenbakiko Epaitegia da genero indarkerian eskuduna, eta ez du zaintzarik egiten. Larunbata zenez, guardian zegoen epaitegiak, 1.zenbakikoak, burutu zuen agerraldia. Ondoren auzia 4.epaitegira pasatu zen eta han berretsi zuten Babes Agindua.

56 Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duen 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, *GAZ* 260. zk., 1882ko irailaren 17koa.

eta komunikatzeko debekua eskatuz) eta zenbait neurri zibil, horiek guztiak PKLren 544 ter artikuluan aurreikusitako Babes Aginduaren (aurrerantzean, BA) barne⁵⁷.

Ildo horretan, gogoan izan behar dugu, genero indarkeriarekin behin betiko amaitzeko neurriak hartzeaz gain, biktimak eraginkortasunez babestea ekarriko duten beharrezko lege-mekanismoei garrantzia eman behar diegula⁵⁸. Zentzu horretan, genero indarkeriaren eremuan, biktimaren lehen eskaria babesa jasotzea da bai zigor eremuan bai eremu zibilean, eta horrek berehalako erantzun judiziala eskatzen du etorkizunean eraso gehiago izateko arriskuaren aurrean. Gainera, DBELk babes-eskubidea aitortzen die edozein delituren biktimari, delitu bat ikertzerakoan biktima babesteko beharrezko neurriak hartuko direla adieraziz⁵⁹.

Horrek eramatan gaitu kasuan eskatutako BAren gainean analisi txiki bat egitera, neurri penalez gain neurri zibilak eskatzeko aukera ematen duelako. Hain zuzen ere, nire GrALren helburua honako hau da: emakumeak eta bere kargu dauden adingabeak babesteko zigor prozeduran hartzen diren neurri zibilen garrantzia azpimarratzea, bidean eremu prozesaleko zenbait puntu jorratuz. Horretan sartuko gara jarraian, hain zuzen, BAaren nondik norakoak aztertzen, komentatuko kasua adibide bezala hartuta.

A.- Jatorria eta kontzeptua

2002. urtean, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendio baten bidez, estatu kideetako gobernuei eskatzen zitzaien politika nazionalak berrikustea biktimen segurtasuna eta babesa bermatzeko (3. artikulua a) puntua)⁶⁰. Horrek, Espainian, “*babes agindua*” izeneko mekanismo juridikoa martxan jartzea eragin zuen.

57 486/2020 Aurretiazko eginbideak, 2. aurrekari juridikoa.

58 VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección: estudio de las medidas para las víctimas de violencia doméstica y de género en el marco del artículo 544 ter de la Ley de Enjuiciamiento Criminal”, *Revista de derecho y proceso penal*, 56. zk, 2019, 3.or.

59 DBELren 19. Art: “*Delituak ikertu, jazarri eta epaitzeko ardura duten agintari eta funtzionarioek behar diren neurriak hartuko dituzte, Prozedura Kriminalaren Legean ezarritakoaren arabera, biktimaren eta senideen bizitza, horien osotasun fisiko eta psikikoa, askatasuna, segurtasuna, sexu-askatasun eta -ukigabetasuna bermatzeko, bai eta horien intimitate eta duintasuna egoki babesteko ere, bereziki deklarazioa hartzean edo epaiketa batean lekukotasuna eman behar dutenean, eta bigarren edo erreplikaturako biktimizazioa saihesteko*”. Kasu honetan, Lege horren 10. artikulua dioena kontuan izan behar dugu, izan ere, genero indarkeriaren biktima izan den emakumeaz gain, bere kargura dauden seme-alabek babes berdina jaso beharko lukete, genero indarkeriaren biktimak diren heinean.

60 Emakumea Indarkeriaren Aurka Babesteari buruzko Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2002ko apirilaren 30ean onartutako Gomendioa (Rec (2002) 5).

Mekanismo hori gure ordenamendu juridikoan indarrean sartzen da, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua Arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legearen bidez⁶¹. Lege horrek artikulua berri bat eranstean dio PKLri (544 ter art.) eta PKLren 13. artikulua aldatzen du. Nahiz eta PKLren 544.1. artikulua etxeko indarkeriaren biktimak aipatzen dituen, 1/2004 LOren 62. artikulua berariaz zabaltzen du haren aplikazioa genero indarkeriaren biktimetara⁶².

Esan daiteke doktrinan definizio asko daudela BARI buruz. Hala ere, badaude adostasunak ondorengoaren inguruan: ebazpen judizial bat da, legeak zehaztutako baldintza eta eduki espezifikokoak bete behar dituen, eta biktimari babes-estatutu integrala emango diona, auto berean neurri zibilak zein penalak hartuz prozesu penala izapidetzen den bitartean⁶³. Gainera, Administrazio Publikoen aurrean laguntza-neurriak edo gizarte-babeserakoak hartzeko gaitzen duen titulu gisa eratzten da⁶⁴ (GIAOOBENLOren 23. art⁶⁵).

61 Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legea, EAO 183. zk., 2003ko abuztuaren 1ekoa. Zioen azalpenetan azpimarratzen da familia-giroan gauzatutako indarkeria, eta, bereziki, genero indarkeria gure gizarteko arazo larria dela, eta horrek botere publiko guztien erantzun bateratu eta koordinatua behar duela.

62 EFNren 4/2005 Zirkularren arabera, hiru babes-maila daude biktimetzat: 1.- Babes orokorra, PKLren 13. (zeinetan BA aurretiazko diligentsietan hartu daitezkeen neurrien barne sartzen duen) eta 544 bis. artikuluetan jasotzen dena; 2.- Babes-maila indartuagoa, 544 ter artikuluan aurkitzen dena eta etxeko indarkeriaren biktimei zuzenduta dagoena; eta 3.- Babes-maila altuena, GIAOOBENLOren 61.-69 artikuluetan aurkitzen den. Kontuan izan behar dugu, GIAOOBENLOren 62. artikulua, bere ,1.1. artikuluan zehaztutako kontzeptura zabaltzen duela BAREN aplikazioa. Beraz, ez ditu barne hartzen genero indarkeriaren adierazpen posible guztiak.

63 FUENTES SORIANO, Olga: *El Enjuiciamiento de...*, zit., 165.or.; DELGADO MARTIN, Joaquín: “La Orden de Protección de la víctimas de violencia doméstica”, *Encuentros “Violencia doméstica*, Madril, Dijusa, 2004, 90.or.; SÁNCHEZ RIVERA, Pedro: “La orden de protección en violencia de género”, Fernández González, María Begoña (koord.), *Tratado sobre la igualdad jurídica y social de la mujer en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2019, 377. or.

64 VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección...”, zit., 4.or. Ikus dezakegu, laguntza-neurriak edo gizarte-babeserakoaren kasuan ez direla hartuko BA erabakitzen duen ebazpen judizialean.

65 GIAOOBENLOren 23. artikuluari jarraiki laguntza- neurriak edo gizarte-babeserakoaren kasuan ez direla hartuko BA erabakitzen duen ebazpen judizialean: “*Las situaciones de violencia de género que dan lugar al reconocimiento de los derechos regulados en este capítulo se acreditarán mediante una sentencia condenatoria por un delito de violencia de género, una orden de protección o cualquier otra resolución judicial que acuerde una medida cautelar a favor de la víctima, o bien por el informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de que la demandante es víctima de violencia de género. También podrán acreditarse las situaciones de violencia de género mediante informe de los servicios sociales, de los*

B.- Faseak: Eskera, entzunaldia eta ebazpena

Lehenengo faseari dagokionez, hau da, eskaerari dagokionez, jakin behar dugu PKLren 544 ter. 2 artikularen arabera, BA epaileak erabaki ahal izango duela ofizioz edo honako subjektu hauek eskatuta: 1) Biktima edo bere defentsan jarduten duen abokatu; 2) Haren ahaideak eta ZKren 153. artikuluan aipatzen direnak (kasu honetan, genero indarkerian gauden heinean, izan ere, etxeko indarkeria kasuetan, ZKren 173.2. artikuluko subjektuek eskatzeko eskubidea izango luketeki); 3) Ministerio Fiskala; eta 4) Gertakarien berri duten laguntza-erakunde eta -organismoek⁶⁶. Beraz, kasu honetan supostu hauen barruan egongo ginateke. Aurrean daukagun kasuan, akusazio partikularrak eta Ministerio Fiskalak eskatu zituzten behin behineko neurri horiek, ospatutako entzunaldian.

Horrekin batera, PKLren 544. ter 3 artikulua ezartzen du BAREN eskaera agintaritzaren, Fiskaltzaren, Segurtasun Indar eta Kidegoen (dagokion atestatuan jasoko dena) edo biktimei laguntzeko bulegoetan edo autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetan aurkeztu ahal izango dela, abokatuen elkargoen orientazio juridikoko zerbitzuak ere barnean hartuta⁶⁷. Orduan, hori eskatzeko, ez da beharrezkoa eskaera egiteko legitimatutako pertsonak ebazteko ardura duen organo judizialaren aurrean egitea; aitzitik, komunikazio-sare bat eratu da hainbat organoren artean, guztiak funtzio publikokoak, eta haien aurrean aurkeztu ahal izango da eskaera⁶⁸.

servicios especializados, o de los servicios de acogida destinados a víctimas de violencia de género de la Administración Pública competente; o por cualquier otro título, siempre que ello esté previsto en las disposiciones normativas de carácter sectorial que regulen el acceso a cada uno de los derechos y recursos”.

66 VALIÑO CES, Almudena: “ La orden de protección...”, zit., 8.or. Bertan honako hau adierazten da: “...a causa del deber general de denuncia que prevé el artículo 262 de la LECrim para estas entidades y organismos, deber según el cual habrán de poner estos hechos inmediatamente en conocimiento del Juez de Violencia sobre la Mujer o, en su caso, del Juez de Instrucción en funciones de guardia o del Ministerio Fiscal, con el fin de que el Juez pueda incoar, o el Ministerio Fiscal pueda instar, el procedimiento para la adopción de la orden de protección”.

67 Protocolo para la implantación de la Orden de Protección de las víctimas de violencia doméstica, 10. or. Nahiz eta, PKLren 544 ter. 3 artikuluan ez diren aipatzen abokatuen elkargoen orientazio juridikoko zerbitzuak, zerbitzu horiek eskaera aurkez daitekeen lekuen zerrendan sartuta daudela jotzen dela.

68 VALIÑO CES, Almudena: “ La orden de protección...”, zit., 9.or.

Hala ere, eskaera jaso ondoren, epaile eskudunari igorri beharko zaio. Kontuan izan behar dugu eskuduntza desberdina izango dela etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren kasuan. 1/2004 Lege Organikoak organo berri bat sortu du, EAIE, hain zuzen ere, eta baztertu egin du jurisdikzio-ordena berri bat sortzea edo familiako epaitegiek eskumen penalak beren gain hartzea. Hala, epaitegi espezializatuak daudenez⁶⁹, biktimaren bizilekuko EAIE izango da eskuduna egitateak gertatu ziren unean (PKLren 15 bis. art). Ordea, eskaera EAIEren ordutegitik kanpo aurkezten bada, guardiako eginkizunak dituen Instrukzio Epaitegia izango da eskuduna (GIAOOBENLOren 62. art eta PKLren 544 ter. art), baina gero EAIEren alde inhibituko dira, hau da, EAIEra bidali beharko da⁷⁰.

Behin Baren eskaera jaso ondoren, Guardian dagoen Instrukzioko epaileak⁷¹ edo EAIEk premiazko entzunaldirako deia egingo du PKLren 544. ter 4. artikuluari jarraiki. Gure kasuan, entzunaldi hori PKLren 505.2 artikuluan aurreikusitakoarekin batera gauzatuko da, eskatutako neurrietako bat behin-behineko espexeratzea baita⁷². Kasu honetan, Ministerio Fiskala, ikertua eta haren abokatua eta akusazio partikularreko abokatua (biktimaren izenean) deituak izan ziren eta entzunaldira bertaratu ziren.

Zer ondorio egongo litzateke biktima edo ikertua entzunaldian ez agertzekotan? Alde batetik, biktima edo bere abokatua entzunaldian presente egotea ez da derrigorrezkoa baina PKLren 544 ter 7. artikularen arabera, neurri zibilak hartzeko biktimaren eskaria beharrezkoa izango da, salbu eta biktimak seme-alabak baditu⁷³. Bestetik, ezin bada BA emateko entzunaldia egin ikertua lokalizatu ezin izan delako, Guardiako epaileak jardun guztia igorriko dio EAIEri eta hark bere gain hartuko du eskaeraren gaineko eskumen

69 ARANDA RODRIGUEZ, Remedios: “Medidas civiles contra...”, zit., 19. or. Espezializazioa garrantzitsua da, horrek esan nahi duelako epaitegi horiek arduratuko direla emakumearen aurkako indarkeriaren arloko auzi penalen instrukzioaz, bai eta lotutako kausa zibilez ere.

70 EFNren 4/2005 Zirkularra; ARANDA RODRIGUEZ, Remedios: “Medidas civiles contra...”, zit., 19.-20 orr.; GALDEANO SANTAMARÍA, Ana: *Medidas cautelares en violencia de género: servicio de guardia*, Fiscal Decana de Violencia de Género de Madrid, 2013, 6.-7. orr.

71 Aurretik esan duduan moduan, gure kasuan Guardiako Epaitegia izango da entzunaldirako deia egingo duena EAIE guardian ez zegoelako momentu horietan.

72 Entzunaldia deitzeko bi modu horiek oso antzekoak dira, bietan Entzunaldia burutzeko epe zorrotza (72 ordu) dagoen heienan.

73 TORRES REVIRIEGO, Maria Rosario: “La Orden de Protección para víctimas de violencia de género”, NIETO-MORALES, Concepción (Zuz.), *La crisis en las familias, infancia y juventud en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2015, 126-127. or.

osoa, hargatik eragotzi gabe Guardiako epaileak, kasua denean, PKLren 544 bis. artikuluko kautelazko neurriak hartzea⁷⁴. Hala ere, Fiskaltzaren 3/2003 zirkularraren arabera, entzunaldirako egoki deitua izan bada eta agertu ez bada, BA har daiteke⁷⁵. Honako hau interesgarria da jakitea, normalean ikertua agertzen ez bada BA ukatzeko arrazoi bihurtu daitekeelako eta beraz, bakarrik zigor arloko neurriak (544. bis art) hartuko dira, emakumearen aldeko neurri zibilik adostu gabe (soilik hartu ahal izango dira Kzko 158. artikuluan adierazitako umearen alde).

Azkenik, ebazpena/ autoa dugu azken fase gisa. Entzunaldia egin ondoren, guardiako epaileak edo EAIEk auto bidez bidezkoa dena ebatziko du BAren eskaerari buruz, bai eta jasotzen dituen neurrien edukari eta indarraldiari buruz ere (PKLren 544. 4 ter art). Kasu honetan esan beharra dago, BA Guardiako Instrukzioko Epaitegiak ebazten badu, epaitegi horrek berak ebatzi beharko ditu zigor-arloko neurriak eta neurri zibilak ere⁷⁶. Auto hau alderdiei jakinaraziko zaie, eta epaileak berehala komunikatuko die agindu hori, lekukotza osoarekin batera, biktimari eta babes- neurriak hartzeko eskumena duten herri-administrazioei (PKLren 544 ter 8. art). Azkenik, BA Etxeko Indarkeriaren Biktimak eta Genero Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Zentralean inskribatuko da (PKLren 544 ter 10. art).

Geure kasura jotzen badugu, ohartu gaitezke azkenean behin-behineko espexeratzea adostu zela eta 30 egunetarako honako neurri zibilak ezarri zirela: alderdien guraso-ahala modu partekatuan esleitzea; adingabeko semearen zaintza eta jagoletza amari esleitzea; bisita-erregimena behin-behinean etetea; emazteari eta bien semeari familia-etxebizitzaren erabilera esleitzea; eta 600 euroko mantenu-pentsioa ezartzea semearen alde.

C.- Babes Agindua emateko bete beharreko baldintzak

Oinarri gisa dugun kasuan, BA emateko baldintza batzuk bete behar direla argi uzten du 486/2020 Aurretiazko eginbideen 4. OJan eta hori PKLren 544 ter artikularen 1.

74 VALIÑO CES, Almudena: “ La orden de protección...”, zit., 10.or.

75 Babes Aginduarekin zerikusia duten prozesuko gai batzuei buruzko abenduaren 18ko EFNren 3/2003 Zirkularra (FIS-C-2003-00003).

76 GALDEANO SANTAMARÍA, Ana: *Medidas cautelares en...*, zit., 9.or. Hori garrantzitsua da, askotan, Guardiako Instrukzio Epaitegiek neurri penalak baino ez dituztelako adosten, eta kontuan hartu behar da gerora neurri penal horiek soilik adostuz gero, neurri zibil horiek ezin izango direla ebatzi, eta beraz, biktimak erabat babestu gabe geratuko direla.

apartaduan ikus dezakegu: “Instrukzio-epaileak etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua emango du, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatu pertsonetatik baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, edo askatasun nahiz segurtasunaren aurkako delitua edo faltaren zantzu oinarriak badaude, baldin eta biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa agertzeagatik artikulua honetan araututako babes-neurriren bat hartzea beharrezkoa bada”. Ondorioz, BA emateko, baldintza jakin batzuk aldi berean bete behar dira.

Lehenengo eta behin, gure kasuan, ikus dezakegu ikertuaren kriminalitate-zantzu nahikoak daudela giza hilketaren saiakuntzaren delitua egiteari dagokionez, Zigor Kodearen 142. artikuluan aurreikusita eta zigortuta dagoena. Beraz, lehenengo baldintza bete da: “*Fumus boni iuris*”. Doktrinak adierazten duen bezala, babes-neurri horrek eskubide onaren itxura eskatzen du, hau da, zantzu batzuk egon behar dira, hain zuzen ere, ZKren 173.2 artikuluan aipatutako pertsonetakoren baten bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, askatasunaren, sexu-askatasunaren edo segurtasunaren aurkako delitua izan daitekeen egitate bat benetan egin dela (elementu objektiboa) eta BA ezarri zaion pertsona erantzukizun kriminala duela uste izateko arrazoi nahikoak daudela adierazten dutenak (elementu subjektiboa)⁷⁷.

Ondorio horretara iristeko, aztertutako autoan, kontuan hartu ziren gizon eta emakumearen deklarazioak⁷⁸, eta horrekin batera, atestatuan jasotako larrialdi-txostena eta auzitegi-medikuaren txostena. Bi txosten horiek, biktimak adierazitako egitateen bertsioa berresten dute. Ondorioz, jurisprudentziaren arabera, ez da nahikoa delitu

77 VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección...”, zit., 6. or; BERMÚDEZ REQUENA, Juan Manuel: “La orden de protección a favor de las víctimas de violencia de género en la práctica de los Tribunales”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 734/2007 zk., 1. apartadua; DELGADO MARTIN, Joaquín: “La Orden de Protección...”, zit., 94. or

78 Alde batetik, biktimak (gertakariak gertatu ziren unean haren egungo bikotekidea) deklarazioan adierazitakoaren arabera, 2020ko abenduaren 17an, 08:00ak inguruan, emakumea semearekin (2 urtekoa) zegoen, bikotekideari banandu nahi zuela esatea erabaki zuenean, baina hark ez zion ondo hartu. Une horretan, gizonak arrebari eta amari deitu zien, eta esan zien erokeria bat egingo zuela. Orduan, gizonak iraindu zuen emakumea eta hori beldurtuta zegoela komunerantz korrika joan zen, kisketarekin itxi zuen bere segurtasunagatik. Erasotzailea atea irekitzen saiatu zen, giltza ingeles batekin probatu arte ez zuen atea ireki. Hori egin ostean, iletik biktimari helduta, sukalderantz arrastatu zuen. Ondoren, haren aurrean oldartu zen, zerra-laban bati eutsii, eta, azkenean, ebaki ugari eragin zizkion eskuan, aurpegian, lepoan eta belarrian. Bestetik, erasotzaileak agentei adierazi zien bi aldean artean borrokan aritu zirela, baina ez ziola eraso egin nahi. Gainera, deklarazioan zehar esan die behin eta berriz ez duela ezer gogorutzen.

ezaugarriak dituen egitate bat gertatu delako susmoa izatea⁷⁹. Hori dela eta, aztertu behar da ea badagoen kanpoko elementurik (hala nola biktimaren deklarazioa edo txosten medikoak, aztertutako kasuan bezala) judizialki baloratu daitekeena eta susmo huts hori oinarri sendo bat bihurtzeko erabil dezakeena⁸⁰. Berebiziko garrantzia hartzen dute hainbat bidetatik egindako eginbideek eta ikerketek; izan ere, biktimak, erasotzailearekiko sentitu dezakeen beldurragatik, agian ez du deklaraziorik egingo edo, are gehiago, jarrera oztopatzailea ere har dezake, gertakariak ukatuz⁸¹.

Bestalde, arrisku objektiboa hautematen da, bai emakumearentzat, bai haurarentzat. Beraz, bigarren baldintza betetzen da: *Periculum in damnum o periculum in libertatis*⁸². Kontuan hartu behar dugu PKLren 544. ter 1 artikuluan adierazitako ezaugarri objektibo eta subjektiboak betetzen dituen delitu-egitate bat egon izanaren zantzu hutsa ez dela nahikoa BA bat emateko; aitzitik, delitu ekintza horrek biktimaren osotasunerako, segurtasunerako edo askatasunerako arrisku objektiboa ekarri behar du⁸³.

Horretarako, kasu honetan aurretik emakumeak jarri zuen salaketa bat kontuan hartu zen eta Durangoko Ertzaintzak egindako arriskuaren balorazioa, zeina “*arriku berezia*” adierazten duen. Beraz, arriskugarritasun-judizio bat da, eta banan-banan baloratu behar da kasu bakoitzean, gertaerak kontuan hartuta, bai eta behin baino gehiagotan gertatu den edo aldeztu aurretik salaketarik egon den ere, besteak beste⁸⁴.

79 KAE 111/2008, irailaren 23koa, *EAO* 245. zk., 2008ko urriaren 10ekoa (BOE-T-2008-16300); KAE 16372004, urriaren 4koa, *EAO* 270 zk., 2004ko azaroaren 9koa (BOE-T-2004-19063)

80 Madrilgo PAA, 2004ko abenduaren 2koa (JUR 2005\256547); Madrilgo PAA, 2005ko apirilaren 1ekoa (JUR 2005\246066); Bizkaiko PAE, 2006ko apirilaren 4koa (JUR 2006\184556); Madrilgo PAA, 2005ko apirilaren 27koa (JUR 2005\266374).

81 DE HOYOS SANCHO, Montserrat.: “La orden de protección de las víctimas de violencia de género” DE HOYOS, Montserrat (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: Aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex Nova, Valladolid, 2009, 534. or

82 BA hartu ahal izateko, ez da baldintza gisa “*periculum in mora*” eskatzen (baldintza hori ezartzen da kautelazko neurriak erabakitzeke); izan ere, helburua ez da ziurtatzea subjektu pasiboak ez duela aprobetxatzen prozesuaren iraupenak eragin dezakeen kalteaz, geroko epaiaren eraginkortasuna zapuzteko, baizik eta biktima babestea jasaten duen arrisku objektibotik. Ikusi BARONA VILAR, Silvia: “Medidas cautelares específicas”, MONTERO AROCA, Juan (koord.), GÓMEZ COLOMER, Juan Luis (koord.) eta BARONA VILAR, Silvia (koord.), *Derecho jurisdiccional III. Procesal penal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2019, 312. or; VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección...”, zit., 7.-8. orr

83 BERMÚDEZ REQUENA, Juan Manuel: “La orden de protección...”, zit., 2. apartadua; DELGADO MARTIN, Joaquín: “La Orden de Protección...”, zit., 95-96. orr.

84 BERMÚDEZ REQUENA, Juan Manuel: “La orden de protección...”, zit., 2. apartadua. Iritzi bera jasotzen duten epaiak ere badaude, hala nola, Madrilgo PAA, 2021eko urriaren 13koa (ROJ:

Hala ere, DE HOYOS SANCHOk dioen moduan, BAren izaera juridikoa konplexua da, neurri bakoitzak eduki, arau eta indarraldi desberdinak izango baititu⁸⁵. Kasu honetan, bi baldintzak betetzen direla ikus dezakegu eta, horregatik, BA adostu daiteke, baina behin-behineko espetxeratzea erabakitzeke, PKLren 503. artikuluko baldintzak ere bete beharko dira.

D.- Babes Aginduaren edukia

BAk izan dezakeen edukiari dagokionez, PKLren 544.ter 5. artikuluari jarraiki, kasu honetan, alde batetik, neurri penalei dagokienez, fidantzarik gabeko behin-behineko espetxeratzea eskatu zen eta hori ez onartzekotan babes aginduaren barne 500 metroko urruntze-agindua eta komunikatzeko debekua eskatu ziren; eta bestetik, neurri zibilei dagokionez, amaren eta semearen alde familia-etxebizitza esleitzea, umearen zaintza eta jagoletza amaren alde adjudikatzea, bien semearekin bisitak egiteko debekua eta semearekiko 600 euroko mantenu-pentsioa. Beraz, BAren barne egon ahal diren kautela-neurrien aurrean gaude⁸⁶.

Alde batetik, PKLren 544 ter artikulua 6. apartatuak aurreikusten du prozedura kriminalaren legean aurreikusitako edozein kautela-neurri hartzeko aukera, besteak beste PKLren 13. eta 544 bis artikuluetan aurreikusitakoak, egoeraren proportzionaltasuna eta premia kontuan hartuta. Beraz, izaera penaleko neurrien artean, honako hauek daude: Behin-behineko espetxeratzea edo behin-behineko askatasuna (PKLren 502. art.); erasotzaileak leku jakin batean bizitzeko debekua izatea (PKLren 544 bis. art.), baita leku jakin batzuetara joateko debekua ere (PKLren 544 bis. art.); biktimarengana hurbiltzeko (bestela esanda, urruntze-agindua) edo biktimarekin komunikatzeko debekua (PKLren 544 bis. Art eta GIAOBENLOren 64. art.); erasotzailea familia-etxebizitzatik

AAP M 4712/2021) eta Granadako PAA, 2005eko uztailaren 4koa (JUR 2006\204066)

85 DE HOYOS SANCHO, Montserrat: "La orden de protección...", zit., 533.or

86 Argi izan behar dugu kasuaren momentu procesal horretan BA kautelazko neurri bat dela. Hala ere, genero indarkeriako kondenarekin batera erantsita agertzen da BA. Horretaz gain, bere izaera juridikoaren gainean zenbait zalantza sortu dira. Artikulu horretan espresuki esaten bada ere Babes Agindua kautelazko neurri bat dela, babes-neurri bat bezala kontsideratu daiteke, horren helburua biktimari erasotzailearen aurrean babes-estatutu egoki bat ematea baita, eta ez inputatua epaiketa egiteko epailearen esku egongo dela ziurtatzea. Ikusi GUTIÉRREZ ROMERO, Francisco Manuel: "Medidas judiciales de protección y seguridad de las víctimas: ¿Novedad o mera ordenación de las existentes en nuestra legislación procesal penal?", *Diario la Ley*, 6716. zk., 2007, 3. or; BARONA VILAR, Silvia: "Medidas cautelares específicas", zit., 310. or.

kanporatzea (GIAOBENLOren 64. art.); eta armak edo bestelako objektu arriskutsuak etetea (GIAOBENLOren 64. art.)⁸⁷

Bestetik, PKLren 544 ter artikulua 7. apartatuaren arabera, izaera zibileko neurri horiek izan daitezke, besteak beste, guraso-ahala, harrera, tutoretza, kuradoretza edo izatezko zaintza gauzatzeko modua; familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzea; zaintza- eta jagoletza-araubidea zehaztea; adingabeekin edo babes berezia behar duten desgaituekin egoteko bisita-, komunikazio- eta egonaldi-araubidea etetea edo mantentzea; seme-alabekiko mantenu-eskubidea ezartzea; bai eta seme-alaba arrisku batetik aldentzeko edo kalte horiek saihesteko egokitzat jotzen den beste edozein xedapen ere (KZren 158. art). Geroago, erabakitako neurri zibilei arreta gehiago jarriko diet.

Egia da, laguntza-neurrien edo gizarte babeserakoen gainean ez dela ezer esaten. Hala ere, jakin behar dugu laguntza-neurrien artean daudela Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, Adinekoentzako etxebizitza babestuetarako eta egoitza publikoetarako sarbidea, eta lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzakoak, besteak beste⁸⁸.

BAren helburua da biktimari erantzuna ematea eta bizikidetzaren egoera horretatik irteteko aukera ematea, larriena erasotzailearen mendekotasun ekonomikoa eta haren mendekotasun afektiboa izanik. Hori dela eta, ikus dezakegu, BAK eginkizun eztabaida ezina duela, genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimak mota guztietako erasoetatik babesteko lege-tresna den heinean. Izan ere, prozedura erraz, azkar, eraginkor, koordinatu baten bidez, ordenamendu juridikoan dauden babes-tresnak bateratzen ditu⁸⁹.

Horren bidez, “*bigarren mailako biktimizazioa*” saihesten da edo hori da behintzat xedea, horrelako kasu batean berriz ere topatzeko arriskua ere murriztuz. Kontuan izan

87 VALIÑO CES, Almudena: “ La orden de protección...”, zit., 11-13.orr; Guías Jurídicas: “Orden de Protección”, Grupo Wolters Kluwer-en argitaratua (Eskuragarri hemen: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUNjExMztlLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAHGzjSTUAAAA=WKE) [azken kontsulta: 2022/06/05]

88 Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género: La Orden de Protección. Eskuragarri hemen: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/profesionales/Investigacion/asistenciaSocial/recursos/orden/home.htm> [azken kontsulta: 2022/06/08]

89 ARANDA RODRIGUEZ, Remedios: “Medidas civiles contra...”, zit., 26-27. orr.

behar dugu salaketa jarri ondoren, edozein delituren biktimek egoera askori egin behar dietela aurre justiziaren arloan, eta, ondorioz, berriro sufritu behar dutela⁹⁰. Hori lortzeko, berebiziko garrantzia du ordena jurisdikzional zibilaren eta penalaren arteko koordinazioak.

2.- BI ORDEN JURISDIKZIONALEN ARTEKO KOORDINAZIOAREN GARRANTZIA

Uztailaren 31ko 27/2003 Legea indarrean jarri zenetik, gero eta handiagoa izan da orden jurisdikzionalen arteko koordinazioaren beharra, Instrukzioko epaileak (edo EAIEko epaileak) ebazpen bat eman ahal izan zezan, non, biktima babesteko zigor-arloko neurriez gain, neurri zibilak jasotzeko aukera ematen duen⁹¹. Ordea, ezin dugu ahaztu 1/2004 LOrekin batera, ahaleginak egin direla bi jurisdikzio ordenen arteko koordinazioa errazteko eta ebazpen kontraesankorrak saihesteko, EAIEko epaileari esleitzen baitzaio eskumen eksklusiboak eremu zibilean⁹². Gure kasuari dagokionez, neurri zibilak adosten diren heinean koordinazio hori beharrezkoa da, biktima erabat babestuta egoteko.

90 GUTIERREZ DE PIÑERES BOTERO, Carolina, CORONEL, Elisa; eta PÉREZ, Carlos Andrés: “Revisión teórica del concepto de victimización secundaria”, *Liberabit*, ISSN 1729-4827, 15. Bolumena, 1. zk., 2009, 51. orr.

91 MELERO BOSH, Lourdes Verónica: “Los juzgados de violencia sobre la mujer”, *Universidad de La Laguna*, 2005, 38.or.

92 VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección...”, zit., 3.or.

A.- Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko sortutako orden jurisdikzionalen arteko koordinaziorako protokoloaren aplikazioa eta EAIEen eta Lehen Auzialdiko Epaitegien edo Familiako Epaitegien arteko eskumen gatazka

Aztertuko dugun protokoloaren hitzaurrean adierazten denez, BA eraginkorragoa izatea, neurri handi batean, etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimari babes osoa ematen saiatzen diren operadore guztien koordinazioaren mende dago⁹³. Alde horretatik, Behatokiak Jarraipen Batzordea (gaztelaniaz, “*Comisión de Seguimiento*”) sortzea bultzatu zuen, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen legea ezartzeko, uztailaren 31ko 27/2003 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera. Jarraipen Batzorde horri zegokion koordinazio tresna egokiak prestatzea, auzitegiek eta administrazio publiko eskudunek hartutako babes- eta segurtasun-neurrien eraginkortasuna ziurtatzeko⁹⁴.

Horregatik, Jarraipen Batzordeak, 2003ko abenduaren 18ko bileran, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko orden jurisdikzional penalaren eta zibilaren arteko koordinaziorako protokoloa onartu zuen, zeinearen xedea da bi orden jurisdikzionalak behar bezala koordinatzeko zenbait irizpide ezartzea⁹⁵, etxeko indarkeriaren biktimak eraginkortasunez babesteko⁹⁶. Jakin badakigu, BAren aplikazioa genero indarkeriaren biktimei zabaltzen dela eta beraz, logikoena da BAren aplikazioa eraginkorra izateko sortutako protokoloa ere biktima horiei zabaltzea. Hala ere, genero indarkeriaren biktimak babesteko orduan EAIEk⁹⁷ duen eskumena aztertu behar da, ordena

93 Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko sortutako orden jurisdikzionalen arteko koordinaziorako protokoloa, 2003, 3. or.

94 Etxeko indarkeriaren biktimak..., zit., 3.

95 Geroago ikusiko ditugun irizpideen bidez, babes-esparru integrala eman nahi zaio biktimari, ebazpen kontraesankorrik egon ez dadin. Instrukzioko Epaitegiek etxeko indarkeriaren arloan egiten dituzten jarduketan berri eman nahi die Familiako Epaitegi zibilei; eta erraztu nahi da Familiako Epaitegi Zibilak legezko epeen barruan BA batean erabakitako neurri zibilak berrestea, aldatzea edo kentzeari buruzko erabakia hartzea.

96 ESPAINIAKO BOTERE JUDIZIALA, Comisión de seguimiento. Eskuragarri hemen; <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Comision-de-seguimiento/> [azken kontsulta: 2022/06/12]

97 Kasu honetan, argi izan behar dugu 14 EAIE baino ez daudela. Horrek esan nahi du, ikusi dugunez, halakorik ez dagoen barruti judizialetan, hau da, gehien-gehienetan, EAIEen funtzioak lehendik dauden Instrukzioko Epaitegiek edo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiek hartuko dituztela beren gain, eta epaitegi horiek beren gainerako eginkizunak esleituta izaten jarraituko dutela. Ikusi MELERO BOSH, Lourdes Verónica: “Los juzgados de violencia...”, zit., 50.orr; Guías Jurídicas, “Juzgados de Violencia sobre la Mujer”. Eskuragarri hemen:

jurisdikzional penalaren barruan sortutako beste organo bat den heinean eta eskumen zibilak bereganatu dituen heinean. Organo batek eskumen zibilak zein penalak izateak bi orden jurisdikzionalen arteko koordinazioan edo komunikazioan eragina dauka.

i.- Orden jurisdikzional penalak genero indarkeriarengatik delitu baten existentziaren ezagutza duen kasuetan jarraitu beharreko irizpidea

Gure kasuari dagokionez, jakin badakigu, zigor prozedura bat abiarazi zela alde zurretik prozesu zibilik egon gabe, eta beraz, alde zurretiko neurririk egon gabe. Hain zuzen ere, 486/2020 Aurretiazko eginbideetan, zigor-arloko neurriekin batera zenbait neurri zibil adostu ziren (geroago, horiek banan banan aztertuko ditugu).

PKLren 544 ter.7. artikulua 2 paragrafoak dioen bezala, BAn jasotako neurri zibilek 30 eguneko indarraldia izango dute, salbu eta epe horren barruan familia-prozesu bat hasten bada biktimak edo haren legezko ordezkariak eskatuta; kasu horretan, erabakitako neurriek indarrean jarraituko dute demanda aurkeztu eta hurrengo 30 egunetan. Epe horretan, Lehen Auzialdiko Epaitegiko epaileak (etxeko indarkeriaren kasuan) edo eskuduna den EAIEk (genero indarkeriaren kasuan) berretsi, aldatu edo ondorioz gabe utzi beharko ditu neurriak.

Horri dagokionez, protokoloak dio neurri zibilak berresteko, aldatzeko edo kentzeko eskatuz gero, Dekanotzan edo epaiketa zibilen izapideak bizkortzeko sortutako beste zerbitzu erkide batean aurkeztu ahal izango dela. Izan ere, Familiako Epaitegietako epaileek lehentasuna eman beharko diote gai horiek izapidetzeari. Era berean, protokoloak bere 7. puntuan gaineratzen du, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak dauden barruti judizialetan, banaketa-arauek neurri zibilak berresteko, aldatzeko edo kentzeko eskumena BA eman zuen Epaitegiari esleitu ahal izango diotela, guardia-zerbitzuan dagoelako⁹⁸.

Aztertutako kasuan, Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. zenbakiko Epaitegiak autoa eman zuen 2020ko abenduaren 19an, eta, horren bidez, kausa Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. zenbakiko Epaitegiaren alde inhibitzea erabaki zen (Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena duen Epaitegia den

https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUjQxNjtbLUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUc-ckhlQaptWmJOcSoALb0e4DUAAAA=WKE [azken kontsulta: 2022/06/07]

98 Etxeko indarkeriaren biktimak..., zit., 16.or

heienan), beste epaitegiak erabakitakoa berretsi, aldatu edo kentzeko⁹⁹. Gero, 2021eko urtarrilaren 25ean (30 egun horiek igaro aurretik), epaitegi berean aurkeztu ziren ezkontzaz kanpoko semearen gaineko guraso eta seme-alaben arteko neurriak¹⁰⁰.

Beraz, protokoloan ezarritako irizpideak partzialki aplikagarriak dira genero indarkeriako kasuetan. EAIEk bereganatzen duen eskumena dela eta, demanda zibila zuzenenan EAIEn edo emakumearen aurkako indarkeriaren funtzioa duen Instrukzioko Epaitegiaren aurrean aurkeztu behar delako. Beraz, prozesu osoa (BA adostea eta demanda zibila tarteratzea) orden jurisdikzional penalaren barne geratuko litzateke.

Aitzitik, **zer gertatuko litzateke EAIEk jakingo balu genero indarkeriako egintza bati lotutako prozesu zibil bat dagoela?** Protokoloak ez du horri buruz ezer esaten. Hala ere, Prozedura Zibileko Legearen¹⁰¹ (aurrerantzean, PZL) 49 bis 3. artikuluari jarraiki, genero indarkeriaren ondoriozko zigor-arloko auzi baten gaineko ardura duen emakumearen aurkako indarkeriaren epaile batek jakiten badu prozesu zibil batean BJLOren 87 ter 3 artikuluko¹⁰² betekizunak betetzen direla, inhibizio-errekerimendua igorriko dio prozesu horretaz arduratzen den auzitegi zibilari, aurretiazko eginbideak edo delitu arinen epaiketak hasteko autoaren lekukotzarekin, kereila onartzeko autoarekin edo biktima babesteko adostutako BArekin batera. Ildo horretan, zigor-arloko prozesua irekita badago, genero indarkeriarekin erlazionatutako ekintzez arduratzen ari den epaitegi bera izango da banantzeaz edo dibortzioaz arduratzeko eskuduna¹⁰³.

Beste kasu bat izango litzateke zigor-arloko prozesu hori hasteko unean **aurretiazko neurri zibilen bat egotea**. Kasu horretan, protokoloak dioenez, BA ematen duen zigor-

99 486/2020 Aurretiazko eginbideak, 3. aurrekari juridikoa

100 Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. zk-ko Epaitegiko 91/2021 Autoa, 2021eko maiatzaren 6koa, 1. aurrekari juridikoa.

101 Prozedura Zibilari buruzko 2000ko urtarrilaren 7ko 2/2000 Legea, *EAO* 7. zk., 2000ko urtarrilaren 8koa.

102 Uztailaren 1eko Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, *EAO* 157.zk., 1985ko uztailaren 2koa. Bere 87. ter 3. artikuluan argi uzten du, EAIE eskuduna izango dela prozesu zibileko alderdiren bat genero indarkeriako ekintzen biktima bada; prozesu zibileko alderdiren bat genero indarkeriako ekintzak egiteko beharrezko egile, eragile edo laguntzaile gisa inputatua izan bada; eta EAIEn aurrean emakumeen aurkako indarkeria ekintza baten ondorioz delitu edo delitu arin batengatik jarduketa penalak hasi badira, edo genero indarkeriaren biktima bat babesteko agindua eman bada.

103 CANTURIENSE SANTOS, Ana: “Conflictos de competencia objetiva: Juego de Tronos entre los juzgados civiles y los de violencia contra la mujer”, Editorial jurídica Sepin, 2021. Eskuragarri hemen: <https://blog.sepin.es/2021/05/juzgados-civiles-y-violencia-contra-la-mujer/>

arloko epaileak, salbuespenez, epaile zibilak hartutako neurriak aldatu edo osatu ahal izango ditu, Kode Zibilaren (azurerantzean, KZ¹⁰⁴) 158. artikulua aplikatuz eta adingabearen interesen mesedetan (PKLren 544. ter 7. art); kasu horretan bakarrik, bestela ezin dira beste neurri zibil batzuk hartu. Hala gertatzen bada, BA ematen duen organo judizialak, ofizioz, BAren eskaeraren, BAren autoaren eta biktimari autoa jakinarazteko eginbidearen lekukotza igorri beharko dio auzigaiaz arduratzen den organo jurisdikzional zibilari, eta zer egunetan gertatu zen eta beharrezkotzat jotzen dituen alderdi guztiak adierazi beharko ditu¹⁰⁵.

ii.- Orden jurisdikzional zibilak genero indarkeriarengatiko delitu baten existentziaren ezagutza duen kasuetan jarraitu beharreko irizpidea

Protokoloaren arabera, familia prozesuaz arduratzen den epaile zibilak etxeko indarkeriako egoera bat egon daitekeela jakiten badu, biktimari BAren betekizunen, edukiaren eta izapideen berri emango zaio, eta partikular garrantzitsuen lekukotza emango dio Instrukzioko Epaitegiari (eta, gero, epaitegi horrek eskatutako BAri buruz erabakitzen duen ebazpenaren lekukotza igorriko dio Familiako Epaitegiari)¹⁰⁶.

Ildo horretan, prozedura zibilaren gaineko ardura duen epaile batek genero indarkeriako egintza baten berri duenean (GIAOBENLOren 1.1. art), baina **zigor prozesu bat hasi ez denean edo BARIk eman ez denean**, PZLren 49.bis 2. artikulua zehazten du alderdiei berehala deitu beharko zaiela Ministerio Fiskalarekin hurrengo 24 orduetan egingo den agerraldira, gertatutako egitatei buruzko datu garrantzitsu guztien berri izan dezan. Agerraldi horren ondoren, fiskalak erabaki beharko du hurrengo 24 orduetan genero indarkeriazko ekintzak salatzea edo BA eskatzea EAIEn edo eskuduna den Instrukzioko Epaitegian (etxeko indarkeriaren kasuan). Azkenean, salaketa jartzen bada edo BA eskatzen bada, fiskalak salaketaren edo eskaeraren kopia emango dio auzitegiari, eta auzigaiaz arduratzen jarraituko du, emakumearen aurkako indarkeriaren epaile eskudunak inhibizio-errekerimendua egin arte, hala badagokio.

104 Kode Zibila argitaratzen duen 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, EAO 206 zk., 1889ko uztailaren 25koa.

105 Etxeko indarkeriaren biktimak..., zit., 15.or

106 Etxeko indarkeriaren biktimak..., zit., 14.or

Baina **zigor-prozesu bat hasi bada edo BA bat adostu bada**, inhibitu egin beharko da EIAEren alde, “*ahozko epaiketa*” hasi denean izan ezik (PZLren 49. bis 1. art). Kontuan izan behar dugu “*ahozko epaiketa*” adierazpen eztabaidagarria dela; izan ere, GASCÓN INCHAUSTI¹⁰⁷ dioen moduan, adierazpen hori zigor-arloko prozesu esparruari dagokio eta ez prozesu zibilari eta, beraz, EAIEk ez luke eskumenik izango berak instruitutako kasu ahozko epaiketan aurkitzen bada¹⁰⁷. Ordea, legegileak ez du erreferentzia egiten zigor eremuko prozesuan ahozko epaiketa hasteari, fase hori prozesu zibilean hasteari baizik¹⁰⁸. Ildo horretan, Auzitegi Gorenak dion moduan, ez da nahikoa izango ikustaldirako zitazioa egitea, baizik eta kontuan hartu beharko da entzunaldia egin egin den ala ez¹⁰⁹.

B.- Errealitate juridikoa: Orden jurisdikzionalen arteko koordinazio eta komunikazio falta

Ikusi ahal izan dugunez, alde batetik, protokoloak irizpide batzuk ezartzen ditu bi orden jurisdikzionalen arteko koordinazioa egon dadin, eta, beste alde batetik, PZLren arauak daude EAIEn eskumena zehazteko, zigor-arloko prozesu baten bidez neurri zibilak hartzen baititu. Beraz, bi orden jurisdikzionalen arteko koordinazioa eta komunikazioa espero den gauza da. Hala ere, errealitatea bestelakoa da.

Askotan, ebazpen kontraesankorrak sortzen dira, legegileak ez baitu erabaki zein bitarteko erabili ahal izan diren auzitegi zibil arruntak prozesu penalaren edo BAREN berri izan dezan, eta zer baliabide erabili behar diren prozesu hori ezagutzeko¹¹⁰. Gainera, askotan pentsatzen da etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Zentralaren bidez¹¹¹, bi orden jurisdikzionalak genero indarkeriarekin lotutako prozesu penal edo zibil bat dagoela jakingo dutela; edota

107 GASCÓN INCHAUSTI, Fernando: “Tratamiento procesal de la competencia objetiva, juzgados de violencia sobre la mujer”, Aranzadi S.A.U, 2009, 8.or.

108 GALDEANO SANTAMARÍA, Ana: *Medidas cautelares en...*, zit., 23.or; MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 45.or

109 AGA, 2018ko apirilaren 29koa (Roj: ATS 4772/2018); AGA, 2019ko martxoaren 26koa (Roj: ATS 4446/2019); AGA, 2015ko maiatzaren 6koa (JUR 2015\141666).

110 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 46.or; GASCÓN INCHAUSTI, Fernando: “Tratamiento procesal de la competencia objetiva, juzgados de violencia sobre la mujer”, Aranzadi S.A.U, 2009, 8.or.

111 Honen bidez, informazio-sistema bat ezartzen da delitu edo faltagatiko epaietan ezarritako zigor eta segurtasun-neurriei, kautelazko neurriei eta adostutako BAei buruzko datuak eskeiniz.

biktimen esku uzten dute, beraiek epaitegi bakoitzaren aurrean esango dutela uste delako¹¹².

Tamalez, errealitatean, batzuetan, koordinazioa falta horren ondorio larriak pairatzen dira. Jordiren kasua da horren adibidea: 11 urteko mutiko hau bere aitak berak hil zuen ume horren amarekiko tratu txarrak burututa, kondena bat eta babes neurriak indarrean zeuden bitartean. Kasu honetan, hainbat albisteetan¹¹³ agertzen den moduan, eraildako adingabearen gurasoek, 2021ko uztailean, dibortzio-demanda bat aurkeztu zuten, adostasunez, Suecako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 5. zenbakiko Epaitegian, familia-arloko eskumena zuena. Urte horretako, abuztuan, beste organo judizial batean, zehazki Suecako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. zenbakiko Epaitegian (zeina EAIEko eskumenak zituen), umearen aita kondenatu zuten bere emaztea erasotzeagatik. Kondenan urruntze-agindu bat ezarri zitzaion, semearekiko edozein bisita-erregimen debekatu zen, eta zaintza eta guraso-ahala amari soilik esleitzea ezarri zen. Hala ere, hilabete bat beranduago, umearen aitak eta amak adostasunez berretsi zuten uztailean aurkeztutako dibortzioa, zaintza partekatuarekin.

Lehen esan dugun bezala, legeak egoera horren berri duen Familiako Epaitegiak EAI Era bidaltzera behartzen du, baina batzuetan gerta daiteke horren berri ez izatea, bai alderdietako batek ere ez duelako informaziorik ematen, bai epaitegiak ez duelako kontsultarik egiten erregistro informatikoetan, jarduera penalik ez dagoela baztertzeko. Kasu honi dagoionez, argi utzi behar dugu alderdietako batek ere ez ziola epaitegiari jakinarazi epai penalaren existentzia. Aitzitik, ez da biktimaren errua, emakumeari ezin zaiolako egotzi sistema judizialak dituen gabeziek planteatzen dituzten ondorioak ematea. Egia da biktimak edo prozesuan parte hartzen duen beste pertsonaren batek zerbait esatea espero dela, bestela Epaitegiek ulertuko dute ez dagoela genero

112 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 46.or

113 Hala nola, "Justicia activará alertas y pide cambios legales para evitar casos como Sueca", *LA RAZÓN*, 2022ko apirilaren 6an (Eskuragarri hemen: <https://www.larazon.es/comunidad-valenciana/20220406/6b6ptjku6fattgdf5qz6in2de.html>); "Igualdad urge a la justicia a revisar todas las visitas de padres maltratadores", *IGUALDAD*, 2022ko apirilaren 5ean (Eskuragarri hemen: <https://www.epe.es/es/igualdad/20220405/menor-asesinado-padres-maltratadores-visitas-violencia-vicaria-violencia-machista-13472349>); Violencia vicaria: "Que no se comuniquen los juzgados nos perjudica y 'revictimiza' a nosotras y a nuestros hijos", *HERALDO*, 2022ko apirilaren 5ean (Eskuragarri hemen: <https://www.heraldo.es/noticias/aragon/2022/04/05/violencia-vicaria-la-no-comunicacion-entre-juzgados-perjudica-y-revictimiza-es-a-nosotras-y-a-nuestros-hijos-1565246.html>).

indarkeriako prozesurik irekita. Hala ere, **hori gertatzen da ez dagoelako bi jurisdikzio-ordenen arteko komunikazio arina ahalbidetzen duen datu-babes digitalizatutik**¹¹⁴.

3.- ZIGOR PROZEDURA BATETIK ABIATUZ HARTU DAITEZKEEN BEHIN-BEHINEKO NEURRI ZIBILEN AZTEKETA JURIDIKOA: LEGEA ETA ERREALITATEA

Ikusi ahal izan dugunez, BA oso berritzailea izan zen neurri zibilei dagokienez; izan ere, izaera zibileko neurriei buruz ebazteko aukera ematen dio behin behinean epaileari, biktimak beste jurisdikzio-organo batera (hau da, Lehen Instantziako Epaitegietara) jo beharrik gabe.

PKLren 544 ter 7. artikulua arabera, izaera zibileko neurri hauek eskatzeko edo ofizioz adosteko¹¹⁵ aukera egongo da: lehenik, guraso-ahala, harrera, tutoretza, kuradoretza edo izatezko zaintza egikaritzeko modua; bigarrenik, familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzeko modua; hirugarrenik, adingabeekiko edo babes berezia behar duten desgaituekiko bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimena eteteko edo mantentzeko erregimena; laugarrenik, mantenua emateko erregimena; azkenik, KZren 158. artikuluari jarraiki, arrisku batetik aldentzeko edo kalteak saihesteko egokitzat jotzen den edozein xedapen (adibidez, adingabeen pasaporteak entregatzea, beste pasaporte berria egiteko debekuarekin)¹¹⁶. Horiek, aurretik esan bezala 30 eguneko iraupena izango dute, beste 30 egunez luza daitezkeenak, familia prozedura irekitzeko demanda zibila eskatuz gero¹¹⁷.

114 Aurreko albisteetatik ateratako informazioa.

115 DBELk egindako aldaketa dela eta, umeak indarkeria honen biktima diren heinean, *“biktimarekin bizi diren eta haren mende dauden adingabeak edo babes berezia behar duten desgaituak daudenean, epaileak, betiere, neurri horiek hartzearen gaineko erabakia hartu beharko du, baita ofizioz ere”* gehitu zen legera. Lehen, biktimak edo ministerio fiskalak eskatzen ez bazuten neurri zibilik, ez ziren adosten BAren barne.

116 Argi izan behar dugu ez dela *“numerus clausus”* zerrenda bat, GIAOOBENLOren 61.2. artikulurantz jotzen badugu ikus dezakegu neurri osagarriak hartu daitezkeela.

117 Ildo horretan, VITERI ZUBIAK alderaketa bat egiten du babes aginduaren barne hartutako neurrien eta banaketa edo dibortzio kasuetan ematen den prozedura zibilean eskatzen diren aurretiazko behin-behineko neurriekin. Prozedura zibilean demanda tarteratu aurretik legegileak ezkontideei aukera ematen die demanda tarteratu ostean haiek akordioz edo epaileak ofizioz har

Aztertutako kasuan, aipatutako neurri zibil horien gainean erabaki bat hartu izan da eta horiek banan-banan aztertuko ditu, batez ere, seme-alabarekiko bisita-erregimenean emandako etetea, praktikan egondako eztabaida dela eta.

A.- Guraso-ahalaren egikaritze partekatua¹¹⁸

Aztertutako kasuan, Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiak, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena izanik, guraso-ahalaren esleipena modu partekatuan eramatea berretsi zuen. Hala ere, prozesu zibilari hasiera eman zion demandarekin batera akusazio partikularrak eskatu zuen guraso-ahalaren etetea, behintzat espetxeratuta egon bitartean.

Zentzu horretan, kontuan izan behar dugu guraso-ahala adingabeen interesa zaintzeko erakunde bat dela, eta interes hori dela, hain zuzen ere, guraso-ahalaren helburu nagusia (KZren 154. art¹¹⁹). Beraz, emantzipatu ez diren seme-alabekiko gurasoek dituzten eskubide, ahalmen eta betebeharren multzoa da, zaintza eta jagoletza ez bezala, guraso

ditzakeen behin behineko neurriak aurreratzea edo demanda tarteratu baino lehen aplikagarri izatea. Demanda ostean tartzeratzen diren neurriei behin-behineko neurriak deitzen zaie (KZren 102 eta 103. art: “*medidas provisionales*”) eta horiek demanda tarteratu aurreko egoerara aurreratzen badira aurretiazko behin-behineko neurriak izatera igaroko dira (KZko 104. art: “*medidas provisionales previas*”). Aurretiazko behin-behineko neurri horiek 30 eguneko epea izango dute (babes agindua bezala) eta hartu daitezkeen neurriei erreparatuz, artikulua berean adierazten da behin behineko neurrien eduki bera izango dutela. Beraz, badaude neurri batzuk PKLren 544 ter 7. artikulua barruan ez daudenak, hala nola, ezkontide bakoitzak ezkontzaren kargei egiten dien ekarpena. Ikus VITERI ZUVIA, Ibon: “La trascendencia de la violencia de género en los procesos matrimoniales de separación y divorcio”, *Revista de Derecho de Familia*, 60.zk., 2013, 15-19.orr.

118 Kasu honetan, kontuan izan behar dugu Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurka Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (EAO 134.zk., 2021ko ekainaren 5koa) planteatutako erreformari esker, PKLren 544 ter 7. artikuluari begira, BA baten barruan erabaki daitezkeen neurrien artean sartzen dela guraso-ahala gauzatzeko moduari buruzkoa. Gainera, GIAOOBENLOren 65. artikuluari begira, guraso-ahala eteteko aukera sartu zuen.

119 KZren 154. art: “*Los hijos e hijas no emancipados están bajo la patria potestad de los progenitores. La patria potestad, como responsabilidad parental, se ejercerá siempre en interés de los hijos e hijas, de acuerdo con su personalidad, y con respeto a sus derechos, su integridad física y mental. Esta función comprende los siguientes deberes y facultades: 1.º Velar por ellos, tenerlos en su compañía, alimentarlos, educarlos y procurarles una formación integral. 2.º Representarlos y administrar sus bienes. 3.º Decidir el lugar de residencia habitual de la persona menor de edad, que solo podrá ser modificado con el consentimiento de ambos progenitores o, en su defecto, por autorización judicial.*”

izateagatik eskuratzen dena, eta emantzipatu gabeko seme-alaba adingabe horien ondasunen ordezkaritza orokorra eta administrazioa dakarrena¹²⁰.

Hala ere, genero indarkeria kasuetan, eta gure kasuari erreparatuz, zaila izango da guraso-ahalaren egikaritzea modu partekatu batean eramatea. Kasu horietan, genero indarkeriagatik posiblea da ikertutakoari guraso-ahala etetea (GIAOOBENLOren 65.art¹²¹). Baina, artikulua ondo dioen bezala, guraso-ahala etetea ez da automatikoki gertatzen; izan ere, arau orokor gisa, guraso-ahala bi gurasoek batera gauzatuko dute, edo batek bakarrik, bestearen berariazko edo isilbidezko adostasunarekin (KZren 156. art¹²²). Ildo horretik jarraituz, Euskadin, Gurasoen Banantze edo Haustura Kasuetako Familia Harremanei buruzko ekainaren 30ko 7/2015 Legearen (aurrerantzean, 7/2015 Legea) arabera, guraso-ahala batera egikaritzeko da, baina salbuespen gisa, epaileak erabaki ahal izango du, seme-alaben onurarako, guraso-ahala, osorik edo zati batean, gurasoetako batek egikaritzea (8.art)¹²³.

Kasu honetan, guraso-ahala eteteaz ari gara, guraso-ahalaren egikaritzari soilik eragiten baitio, eta ez haren titulartasunari¹²⁴; beraz, guraso-ahala kentzea baino zehapen arinagoa da. Kode Zibileko 170.artikuluak dioen moduan, ulertu behar dugu, guraso-ahala kentzeak titulartasuna galtzea dakarrela. Ordea, ez da hain erraza hori lortzea, izan ere, jurisprudentiak oso kasu mugatuetan baliatzen duen neurria da. Horrelako neurri bat adosteko, egitatearen larritasunari eta adingabearen interes gorenari erreparatzeaz gain, ikusi egin behar da zer nolako portaera erakusten duen gizona, epaileak berariazko

120 Nevado Montero, Juan José: *El ejercicio de la patria potestad en situaciones de no convivencia de los progenitores*, Barcelona, Bosh, 2021, 165.orr

121 GIAOOBENLOren 65.art: “*El Juez podrá suspender para el inculgado por violencia de género el ejercicio de la patria potestad, guarda y custodia, acogimiento, tutela, curatela o guarda de hecho, respecto de los menores que dependen de él.*” Bigarren paragrafoan honako hau dio: “*Si no acordara la suspensión, el Juez deberá pronunciarse en todo caso sobre la forma en la que se ejercerá la patria potestad*”

122 KZren 156. art: “*La patria potestad se ejercerá conjuntamente por ambos progenitores o por uno solo con el consentimiento expreso o tácito del otro...*”. Gainera, oinarritu garen kasuan, genero indarkeria eman zen momentuan elkarrekin bizi ziren eta momentu horretan guraso-ahalaren egikaritzea beti partekatua izan da.

123 Gurasoen Banantze edo Haustura Kasuetako Familia Harremanei buruzko ekainaren 30ko 7/2015 Legea, *EHA* 129.zk., 2015ko uztailaren 10koa.

124 Horrelako kasuetan, guraso-ahala kentzearen inguruan hitz egingo genuke. Ikusi MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 118.or

arrazoia erakutsiz¹²⁵. Guraso-ahala kentzea, zehapena baino gehiago, Auzitegi Gorenak deklaratu duenez, haurra babesteko neurri bat da, eta horrela ulertu eta aplikatu behar da, kasurik larrienetan guraso-ahala kentzeraino iritsi arte¹²⁶.

Guraso-ahala eteteko eskatu ahal izango da, adibidez, seme-alabaren zaintza ez duen gurasoak denbora daramanean kanpoan edo espetxean dagoenean (genero indarkeriako kondenaetik izan edo ez). Neurri horren bidez, adingabearen interesa babestu nahi da, eta ez, ordea, aitaren jokabideak zigortzea, seme-alaben babes osoa bermatzeko¹²⁷. Beharrezkoa izango da guraso-ahala etetea, BAN hartutako neurriek ahalaren egikaritzea bateratua ezinezko egiten dutenean¹²⁸.

Hala ere, aurretik adierazi dudan moduan, BAREN barne honelako neurri bat hartu zen baina ez zen hasieratik guraso-ahalaren etetea (hori adostu zen behin demandan akusazio partikularrak eskatuta eta soilik espetxean egon bitartean) eman nahiz eta behin behineko espetxeratzea ezarri. Nola da posible hori? Errealitatean, ikusi izan da genero indarkeria egoera, berez, ez dela faktore erabakigarria guraso-ahalaren egikaritzea eteteko orduan¹²⁹. Izan ere, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak azken hiru hiruhilekoetan emandako datuen arabera, 109 aldiz baino ez da erabaki guraso-ahala etetea, hau da, adostutako neurri zibil guztien % 0,9a¹³⁰. Epaileei utzi zaie balorazio-tarte zabal bat erabakitzeko, nahiz eta legean argi utziz umearen interes gorena bilatu behar den.

125 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 92.or

126 PERAL LÓPEZ, María del Carmen: *Madres maltratadas: Violencia...*, zit., 126-128.orr; VITERI ZUVIA, Ibon: “La trascendencia de la...”, zit., 24.or

127 Nevado Montero, Juan José: El ejercicio de la..., zit.,166.orr; VITERI ZUVIA, Ibon: “La trascendencia de la...”, zit., 20-25.orr

128 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 120.or

129 Hala nola, epai hauetan horrelako egoerak ikus daitezke: Castelloneko PAE, 2012ko abenduaren 14koa (JUR 2013\121252); Madrilgo PAE, 2015ko martxoaren 20koa (JUR 2015\108490).

130 FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de...”, zit., 25.or

B.- Amaren aldeko semearekiko zaintza eskusiboa

Aztertutako kasuan, Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiak, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena izanik, amaren alde semearen zaintza esleitzea erabaki zuen. Gero, prozesu zibilar hasiera eman zion demandarekin bat behin-behineko neurri gisa amaren aldeko zaintza eskusiboa ere eskatu zen.

Lehendabizi, jakin behar duguna da, zaintza eta jagoletza gurasoetako bati edo biei beren seme-alaba adingabeekin bizitzeko ohiko eskubidea ematen dien ahala edo ahalmena dela¹³¹. Kasu horietan, bi supostu aurki ditzakegu: alde batetik, zaintza eskusiboa (KZko 92. artikulutik ondoriozta daitekeena¹³²) eta bestetik, zaintza partekatua (7/2015 Legeak arau nagusi gisa duena¹³³).

Ordea, SEISDEDOS MUIÑOK dioen moduan, zaintza partekatua jada ez da salbuespenetzko neurria¹³⁴. Izan ere, azken urteotan hainbat Auzitegi Gorenaren epaiek¹³⁵

131 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 122-123.or

132 KZren 92. artikulua bi aukera ezartzen ditu zaintza eta jagoletza partekatua adostu ahal izateko: lehenengoa 5. paragrafoan jasotakoa da, zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duena bi gurasoek batera eskatzen dutenean; eta bigarrena arau horren 8. paragrafoan jasotzen da, zeinak "excepcionalmente y aun cuando no se den los supuestos del apartado cinco" zaintza partekatua eman daiteke alderdiren baten eskaerarekin.

133 Euskadiko 7/2015 Legearen 9.1 eta 9.2. artikulua: "1.- Guraso bakoitzak, bere aldetik edo bestearekin ados delarik, adingabeen intereserako, eskatu ahalko dio epaileari seme-alaba adingabe edo ezgaituen zaintza eta jagoletza era partekatuan edo haietako batek bakarrik gauzatea. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da jagoletza garatzeko erregimenerako proposamen oinarritu bat, non elkarbizitza- eta harreman-aldiak zehaztuko baitira, bai eta jagoletza ez duen gurasoarekin eta, hala badagokio, gainerako ahaide eta hurbilekoekin komunikatzeko moduak ere. 2.-**Guraso bat jagoletza partekatuaren aurka egotea edo bi gurasoen arteko harremanak txarrak izatea ez da eragozpen** eta arrazoi nahikoa izango jagoletza partekatua ez emateko adin-gabearen intereserako"

134 SEISDEDOS MUIÑO, Ana: "la atribución del uso de la vivienda familiar en caso de ruptura de los progenitores: análisis de la ley 7/2015, del parlamento vasco", *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 3 bis zk., 2015, 147.or

135 Zentzu honetan, AGE, 2013ko apirilaren 29koa (RJ 2013\3269), 2.OJ:"*los requisitos que, con reiteración ha señalado esta Sala, tales como la práctica anterior de los progenitores en sus relaciones con el menor y sus aptitudes personales; los deseos manifestados por los menores competentes; el número de hijos; el cumplimiento por parte de los progenitores de sus deberes en relación con los hijos y el respeto mutuo en sus relaciones personales; el resultado de los informes exigidos legalmente, y, en definitiva, cualquier otro que permita a los menores una vida adecuada en una convivencia que forzosamente deberá ser más compleja que la que se lleva a cabo cuando los progenitores conviven*". Baldintza hauek betez gero, zaintza partekatua

salbuespenezko izaera horren ideia baztertu dute, eta honako hau adierazi dute: KZren 92. artikulua ez du ondorioztatzen salbuespenezko neurria denik; aitzitik, normalizat eta are desiragarritzat jo beharko da, seme-alabek bi gurasoekin harremanak izateko duten eskubidea eraginkorra izatea ahalbidetzen baitu, baita krisi-egoeretan ere, ahal den guztietan eta ahal den neurrian. Horren inguruan, PEREZ VALLEJOSek adierazten du egun, zaintza partekatua sistema normal eta are desiragarri gisa eratzen dela, guraso-erantzukizuna gauzatzeko modalitate horrek dakartzan onurengatik, seme-alabei bi gurasoekin bidezko komunikazioa eta integrazioa sustatzen eta errazten baitie; desorekak saihesten ditu presentzia-denboretan; ez dago galera-sentimendurik; ez da zalantzan jartzen gurasoen egokitasuna, eta lankidetzeta eta koahaidetasuna sustatzen ditu adingabearen mesedetan¹³⁶.

Zentzu honetan, ulertu behar dugu zaintza partekatua ez dela beti adosten, umearen ineteres gorena kaltetzen badu. Euskadiko Legearen arabera, automatikoki ezarriko da zaintza partekatua nahiz eta gurasoen arteko harremana ona ez izan (7/2015 Legearen 9.2. art). Ordea, nire ustez, guraso bien arteko harremana ona ez izateak umeari kalte gehiago egin ahal dio. Euskadi mailan, zaintza partekatua ukatzeko arrazoi bakarra genero indarkeriagatik epai irmoa egotea litzateke (7/2015 Legearen 11.3 art.¹³⁷). KZko 92.7. artikulua, genero indarkeria kasuei dagokionez, gauza bera plazaratzen du: “*No procederá la guarda conjunta cuando cualquiera de los padres esté incurso en un proceso penal iniciado por intentar atentarse contra la vida, la integridad física, la libertad, la integridad moral o la libertad e indemnidad sexual del otro cónyuge o de los hijos que convivan con ambos. Tampoco procederá cuando el juez advierta, de las alegaciones de las partes y las pruebas practicadas, la existencia de indicios fundados de violencia doméstica o de género. Se apreciará también a estos efectos la existencia*

adostuko da. Horren ildora, AGE, 2014ko apirilaren 25koa (RJ 2014\2651); AGE, 2015ko otsailaren 16koa

136 PÉREZ VALLEJO, Ana Maria: “Custodia compartida y violencia de género”, *Revista de Estudios de las Mujeres*, 4. Bolumena, 2016, 88.or

137 7/2015 Legearen 11.3. art: “*Hala ere, orokorrean ulertuko da ezin zaiola seme-alaben zaintza eta jagoletza esleitu, ez banakakoa ez partekatua, ez eta seme-alabekiko egonaldi-, harreman- eta komunikazio-erregimenik ere, guraso bati baldin eta epai irmoz zigor-kondena ezarri bazaio bikotekidearen edo bi gurasoekin bizi diren seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik egindako etxeko edo generoko indarkeria-delitu batengatik, harik eta erantzukizun penala azkentzen den arte*”

de malos tratos a animales, o la amenaza de causarlos, como medio para controlar o victimizar a cualquiera de estas personas.” Kasu honetan, ikus dezakegu, modu automatiko batean aplikatuko dela.

Gainera, AGren 2016ko otsailaren epaiari begira, konturatu ahal gara zaintza eta jagoletza partekatua bateraezina dela gurasoetako baten (aita) kondenarekin, familia-eremuko mehatxu-delitu batengatik; izan ere, zaintza partekatuak berekin dakar gurasoen artean elkarrekiko errespetuzko harremana izateko beharra¹³⁸. Hala ere, haurrentzat onuragarriagoak diren aldaketak egon daitezke. Hori gertatzen da genero indarkeriaz akusatuta dagoenak frogatzen duenean ez dagoela horren aurkako zantzu nahikorik¹³⁹. Hori dela eta, kasua artxibatu egiten da eta zaintza eta jagoletza alda daitezke, eta zaintza partekatua aukeratu ahal izango da¹⁴⁰.

Gure kasuan, argi dago ez dela egongo harreman on bat bi alderdien artean eta gainera, umea bere amarekiko gertatutako indarkeriaren lekuko izan zen heinean, indarkeria horren biktima ere izan da.

C.- Bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimena etetearen aldeko neurria

Aztertutako kasuan, Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiak, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena izanik, **bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimena etetearen aldeko neurria adostu** zuen. Gero, prozesu zibilari hasiera eman zion demandarekin bat behin-behineko neurri gisa, gauza bara adostu zen.

Bisita-, komunikazio- edo egonaldi-erregimena banantze-, deuseztasun- edo dibortzio-prozesu baten ondoren edo izatezko bikotearen bizikidetzeta hautsi ondoren gertatzen da. Prozesu horretan, seme-alaben zaintza eta jagoletza, judizialki onartutako hitzarmenean edo epai judizialean, gurasoetako bati esleai dakioke, eta, lotura afektiboak haustea

138 Aipatutako epaian honako hau adierazten da: *“sus razones no pueden dejar sin respuesta hechos indiscutidos de violencia en el ámbito familiar, con evidente repercusión en los hijos, que viven en un entorno de violencia, del que son también víctimas, directa o indirectamente, y a quienes el sistema de guarda compartida propuesto por el progenitor paterno y acordado en la sentencia les colocaría en una situación de riesgo por extensión al que sufre su madre, directamente amenazada”*. Epai hau artikulua honetatik aterata dago: PÉREZ VALLEJO, Ana Maria: “Custodia compartida y...”, zit., 97.or

139 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 173.or
140 Ikus 7/2015 Legearen 11. 4. artikulua azkenengo paragrafoa.

saihesteko, bisita- edo komunikazio-erregimen bat ezartzen da, seme-alaben eta gurasoen arteko lotura, tratua eta komunikazioa mantentzeko¹⁴¹.

Arazoa genero indarkeriako kasu baten aurrean gaudenean gertatzen da. Bisita-, komunikazio- edo egonaldi-erregimeneko neurrien kasuan, erreforma dezente egon direnez horiek aztertu beharra daude. Jarraian, praktika judizialean gertatzen denarekin alderatzeko.

Lehenengo eta behin, kontuan hartu behar dugu uztailaren 22ko 8/15 Lege Organikoak hasitako erreforma, zeinak GIAOOBENLOren 65. eta 66. artikuluen erreformari ekin baitzion. Lege horren 66. artikuluan, bisita-erregimena eteteaz gain, genero indarkeriagatik akusatutakoari egonaldi-, harreman- edo komunikazioa- erregimena bertan behera uzteko aukera gehitu zuen, haren mendeko adingabeei dagokienez. Erreforma horren bidez, epaileari bisita-, egonaldi- edo komunikazio-erregimena eteteko aukera baino eman ez zitzaion arren, 2021ean egon ziren bi erreformek PKLren 544 ter 6. eta 7. artikulua eta KZren 94. artikulua erreformatu zituzten, bisita-, egonaldi- eta komunikazio-erregimenaren gainean jarri daitekeen etetea modu inperatiboan ezarriz¹⁴².

Alde batetik, Haurrak eta Nerabeak Erabat Babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/21 Lege Organikoak 544. ter 7. artikuluan burututako erreforma¹⁴³ daukagu. Kasu honetan, erreforma horren bidez, PKLko 544 ter artikuluari buelta bat eman dio; hots, bisita-erregimenaren etetea inperatiboki ezarriko da adingabeak indarkeria-adierazpenak ikusi,

141 MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior...*, zit., 175.or

142 ORTEGA CALDERÓN, Juan Luis: “La suspensión del régimen de visitas, comunicaciones y estancias al amparo del artículo 94 Código Civil tras la reforma por Ley 8/21 de 2 de junio”, *Diario La Ley*, 9892. zk, 2021, 4.or

143 PKLko 544 ter 7. art (erreforma eta gero): “*Estas medidas podrán consistir en la forma en que se ejercerá la patria potestad, acogimiento, tutela, curatela o guarda de hecho, atribución del uso y disfrute de la vivienda familiar, determinar el régimen de guarda y custodia, suspensión o mantenimiento del régimen de visitas, comunicación y estancia con los menores o personas con discapacidad necesitadas de especial protección, el régimen de prestación de alimentos, así como cualquier disposición que se considere oportuna a fin de apartarles de un peligro o de evitarles perjuicios*”.

PKLko 544 ter 7. art (erreforma baino lehen): “*Estas medidas podrán consistir en la atribución del uso y disfrute de la vivienda familiar, determinar el régimen de guarda y custodia, visitas, comunicación y estancia con los menores o personas con la capacidad judicialmente modificada, el régimen de prestación de alimentos, así como cualquier disposición que se considere oportuna a fin de apartarles de un peligro o de evitarles perjuicios*”.

jasan edo horiekin bizi izan den kasu guztietan eta horrelako kasurik eman ez bada, salbuespen moduan bisita-erregimenak mantentzearen alde egingo da.

Orain argi utzi behar dugu "ikusi" hitzaren bidez adierazi nahi dena da pertzepzio sentsorialetara zabaldu behar dela (ez soilik umeak ikusi baldin badu). Horretaz gain, "jasan" hitzaren bidez ulertu behar dena da adingabeak edozein modalitatetan pairatutako tratu txarrak. Azkenik, "bizi" hitzarekin etxean erabilitako indarkeriaren iraunkortasunari edo egonkortasunari egin nahi zaio erreferentzia¹⁴⁴

Bestetik, Desgaitasuna duten Pertsonen beren Gaitasun Juridikoa baliatuz Laguntzeko Legeria Zibila eta Prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legeak¹⁴⁵ KZren 94. artikuluan egindako erreforma dugu. KZren 94. artikuluan¹⁴⁶ idazketa berriaren arabera, etxeko indarkeriatatik eta genero-indarkeriatatik prozesu penaletan dauden gurasoen seme-alaba adingabeekiko bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimen oro eteteko betebeharra esleitzen zaio epaile zibilari, jarduteko tarte txikiarekin.

KZren 94. artikuluan ez da eskatzen arrazoizko zantzurik egotea adingabeek BAN zehaztutako indarkeria-egoera ikusi, jasan edo harekin bizi izan direla pentsatzeko. Kasu horretan beti aplikatuko da, baina adingabearen interes gorena kontuan hartuta. Hori ematen da BA bat hartzeko dagoen presaren ondorioz¹⁴⁷. Kasu horietan, ezin duzu ikusi zein den adingabearentzako aukerarik onena. Gainera, BAren bidez ez da onartzen bisita erregimen berri bat (ex novo) erabakitzea, baina bai prozedura zibil batean, erregimen

144 FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, "Conclusiones del XVII seminario de...", zit., 26.or

145 Desgaitasuna duten Pertsonen beren Gaitasun Juridikoa baliatuz Laguntzeko Legeria Zibila eta Prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legea, EAO 132. zk., 2021eko ekainaren 3koa.

146 KZren 94.2. art: "*No procederá el establecimiento de un régimen de visita o estancia, y si existiera se suspenderá, respecto del progenitor que esté incurso en un proceso penal iniciado por atentar contra la vida, la integridad física, la libertad, la integridad moral o la libertad e indemnidad sexual del otro cónyuge o sus hijos. **Tampoco procederá** cuando la autoridad judicial advierta, de las alegaciones de las partes y las pruebas practicadas, **la existencia de indicios fundados de violencia doméstica o de género.** No obstante, la autoridad judicial **podrá establecer un régimen de visita, comunicación o estancia en resolución motivada en el interés superior del menor o en la voluntad, deseos y preferencias del mayor con discapacidad necesitado de apoyos y previa evaluación de la situación de la relación paternofamiliar.***

147 FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, "Conclusiones del XVII seminario de...", zit., 32.or

hori adingabearen interes gorenean oinarritu daitekeen heinean¹⁴⁸. Ildo horretik, Euskadin mailan, 7/2015 Lgearen 11.3. eta 11.4. artikulua kontuan hartuz, KZren 94. artikuluen antzera, bisita erregimen bat adostea salbuespenez emango da, umearen interes gorena aintzat hartuz¹⁴⁹.

Hala ere, bide jurisprudenziala kontuan izanik, gerta liteke aldaketa berri honetan jasotzen den salbuespena, arau nagusi bihurtzea. Izan ere, kontuan izan behar da auzitegiek indarrean dagoen araudia aplikatu izanak lehentasuna ematen diola gurasoen eta seme-alaben arteko harreman pertsonalak ez hausteari¹⁵⁰. Aitzitik, nire aburuz, akats larria da. Egoera horrek, indarkeria burutzen duen gizonak bisita-eskubidea emakumearen aurkako indarkeria gauzatzeko erabili dezake, bere seme-alaben kontra jo eta horrela emakumeari gehiago kaltetzeko.

D.- Amaren eta semearen familiaren etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleipena eta semearekiko mantenu-pentsioa

Aztertutako kasuan, Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiak, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena izanik, amari eta semeari familiaren etxebizitzaren esleitzea eta seme-alabarekiko mantenu pensioa ezartzea erabaki zen. Gero, prozesu zibilar hasiera eman zion demandarekin bat behin-behineko neurri gisa, gauza bara adostu zen (nahiz eta mantenu-pentsioari dagokionez prezioaren inguruan gatazka bat sortu zen).

148 ORTEGA CALDERÓN, Juan Luis: “La suspensión del régimen de...”, zit., 6-7.or; FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de...”, zit., 31.or

149 Euskadiko 7/2015 Legearen 11.4. art: “*Salbuespen gisa, epaileak, seme-alaben interes gorena babesteko komenigarri iritziz gero, kontuan izanda arestiko irizpideak eta, bereziki, egindako delituaren garrantzia eta larritasuna, jarritako zigorraren izaera eta iraupena eta gurasoaren berrizkatura eta arriskutsutasuna, egonaldiko, harremaneko edo komunikazio hutseko erregimen bat ezarri ahalko du seme-alabei dagokienez*”

150 FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de...”, zit., 32.or.

Ildo horretan, KZren 96. artikuluan¹⁵¹ xedatutakoari jarraiki, genero indarkeriako egoera batean, familia etxebizitzaren esleipena egiterakoan, interes babesgarrienaren printzipioa aplikatzen da. Horren ondorioz, seme-alaba adingabeak egonez gero (gure kasuan ematen den egoera da, 2 urteko mutiko bat duen heinean), horien interesa izango da, eta familia-bizilekua adingabeei esleituko zaie, eta adingabearekin geratzen den gurasoari; seme-alabarik ez badago edo adin nagusikoak badira, biktimaren interesa izango da. Kasu honetan, erabilera eta gozamina aitortze hutsa dira, ondasun higiezinaren titularraren jabetza-eskubideari eragiten ez diona. Nahiz eta horrek ez duen eraginik izango horren titular ez den emakume biktimari egozteko¹⁵².

Hala ere, aipatu beharra dago GIAOOBENLOren 64.2. artikulua dioena: “*El Juez, con carácter excepcional, podrá autorizar que la persona protegida concierte, con una agencia o sociedad pública allí donde la hubiere y que incluya entre sus actividades la del arrendamiento de viviendas, la permuta del uso atribuido de la vivienda familiar de la que sean copropietarios, por el uso de otra vivienda, durante el tiempo y en las condiciones que se determinen*”. Zentzu honetan, epailearen baimen baten bidez, etxebizitzaren erabilera esleitzen zaion ezkontidea (kasu honetan argi dago emakumea izango dela zeina familia-etxebizitzaren jabea izan behar duen) beste etxebizitza batera joan ahal izango dira (emakumea eta bere semea), etxebizitza hori agentzia edo sozietate publiko bati ematearen truke.

Bestalde, semearekiko mantenu-pentsioari dagokionez, ulertu behar dugu mantenu-pentsioak barnean hartzen duela mantenurako, logelarako, janzkerarako, medikulanguntzarako eta hezkuntzarako behar den guztia, adingabea den bitartean, eta, are geroago ere, prestakuntza amaitu ez badu berari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik¹⁵³. Hala ere, seme-alaba adingabeen eta adin nagusikoen elikagaiek ez dute

151 Kasu honetan, KZko 96. artikuluari begira, arau nagusi gisa, etxebizitzaren erabilpena seme-alaben zaintza hartzen duena izango du, izan ere, beti pentsa da haurrentzat komenigarria dela beren ohiko ingurunean egotea. Aldiz, Euskadiko 7/2015ko legearen 12.2. artikuluari jarraiki, umearen zaintza duenari emango zaio lehentasunez zaintza baina umearen mesedetan egiten bada. Orduan, honako hau lehentasunezko araua kontsideratzeko umearen interes gorenari erreparatu behar zaio. Gehiago sakontzeko: SEISDEDOS MUIÑO, Ana: “La atribución del uso...”, zit., 147.or

152 FUENTES SORIANO, Olga: “El Enjuiciamiento de...”, zit., 179.or

153 “La obligación de alimentar a los hijos menores es consecuencia de la filiación y la de alimentar a los hijos mayores es consecuencia de la situación de necesidad en la que se encuentren”. Eskuragarri hemen: <https://patriciogonzalezabogados.com/pension-alimentos-hijos->

jatorri bera. Izan ere, seme-alaba adingabeak dituzten gurasoen kasuan bere mantenu-pentsioa guraso-ahalean oinarritu egingo da. Gure kasuan gertatzen den moduan. Horrekin esan nahi dut aztertutako kasuan, 2 urteko seme bat izatean, mantenu-pentsio horren arrazoia KZren 154. artikuluan dagoela, hots, guraso-ahalaren barne. Kasu honetan, epaileak erabakiko du guraso bakoitzak zer ekarpen egin behar duen elikagaiak asetzeko (KZren 93. art¹⁵⁴). KZren 93. artikulua bigarren paragrafoan argi adierazten du adin nagusiko seme-alaben kasuan, KZren 142. artikulua eta hurrengoak aplikatu behar direla, zeinak familiaren elkartasun-printzipioan oinarritzen diren, hots, senideen beharrea edo premian oinarritzen diren.

Kasu horretan, GALDEANO SANTAMARIAK adierazten duen moduan, familiaren mantenu ekonomikoa aitarena bada edo, gutxienez, amaren diru-sarrerekin bakarrik ezinezkoa bada amaren eta seme-alaben oinarritzko premiak asetzea, beharrezkoa izango da gurasoak ekarpen ekonomikoa egitea seme-alaba adingabeen elikagaietan berehala¹⁵⁵. Horregatik, genero indarkeria kasu bat ematen denean nahiko garrantzitsua da lehen baino lehen neurri hau adostea.

Hala ere, neurri hori ezartzeak beste indarkeria mota bat ekar dezake, genero indarkeria ekonomikoa deritzona, askok seme-alaben pentsioak ez ordaintzea erabakitzen baitute, emakumea beldurrarazi nahian¹⁵⁶.

Laburbilduz, kapitulu honetan zehar aztertu dugu lehendabizi BA baten funtzionamendua nolakoa den; hortik abiatuz, bertan hartutako neurri zibilen ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko. Bidetik, neurri zibilen presentzia dela eta, bi orden juridikzionalen arteko koordinazioari jarri diogu arreta, bertan baitago gakoa geroago hartuko diren neurri zibiletan espero den efikazia lortzeko.

[menores/](#)

154 KZren 93. artikulua lehenengo paragrafoa: “*El Juez, en todo caso, determinará la contribución de cada progenitor para satisfacer los alimentos y adoptará las medidas convenientes para asegurar la efectividad y acomodación de las prestaciones a las circunstancias económicas y necesidades de los hijos en cada momento*”.

155 GALDEANO SANTAMARÍA, Ana: “Medidas cautelares en violencia...” zit., 9. orr.

156 “El Gobierno estudia tipificar el impago de pensiones como violencia de género”, *el diario*, 2022. Eskuragarri hemen: https://www.eldiario.es/catalunya/gobierno-estudia-tipificar-impago-pensiones-violencia-genero_1_8769429.html. Honako hau, Lucia Aviles Magistratuak proposatu zuen, ZK-ko artikulua bitartez.

IV. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Atal honetan, genero indarkeriaria buruzko azterketa zehatza egin ondoren, zigor-prozesu baten bidez hartutako neurri zibilei erreparatu ostean eta bi orden jurisdikzionalen arteko koordinazioa ikusi ondoren, atera ditudan ondorioak edo konklusioak azalduko ditut:

1.- Berebiziko garrantzia du Espainiak Istanbulgo Hitzarmenaren erregulazioa erabat txertatzea genero indarkeriari dagokionez. Ikusi dugu nola Istanbulgo Hitzarmenak ez duela ezartzen bikotearen esparruko indarkeria izan behar duenik, baizik eta gizon batek emakume izateagatik emakume baten aurka egiten duen indarkeria. Gainera, Nazioarteko Legediarekin edota EAeko 4/2005 Legearekin alderatzen badugu, ondorio berara iritsiko gara. Araudi horietan, genero indarkeriaren kontzeptu zabalago bat eskaintzen da. Baina zergatik ez Estatu mailan? Familiara mugatzea akats larria da. Egia da, kasu gehienak familia eremuan gertazen direla baina badaude beste eremu batzuk genero indarkeria kontsideratzen direnak eta emakume guztiak babestuta egon beharko liratezkeenak. Beraz, oso garrantzitsua iruditzen zait Espainiak Istanbulgo Hitzarmenak planteatzen duen genero indarkerirantz hurbiltzea, horrela gaitz-sozial horren biktima diren emakume askok babestuago egongo lizatezke.

2.- Orden jurisdikzional penalaren eta zibilaren arteko koordinazioa behin ikusita, argi geratu zait ez dagoela inolako komunikaziorik, genero indarkeriaren arloan behintzat. Honekin aditzera eramane nahi dudana da etxeko indarkeria kasuetan badagoela komunikazio gehiago. Izan ere, orden jurisdikzional bakoitzetik organo bat sartuta dagoelako aurrera eramango den prozedura horretan. Ildo horretik, Etxeko indarkeria kasuetan, Instrukzioko Epaitegiak BA onartuko du (orden jurisdikzional penalaren organo bat izanik) eta gero, bertan neurri zibilak hartzekotan prozedura zibilari hasiera emango dion demanda Lehen Instantziako Epaitegian tarteratuko da (orden zibilaren organo bat izanik). Beraz, argi dago, etxeko indarkeria kasuetan, komunikazioa badagoela. Genero indarkeria kasuetan, aldiz, ez. Nire ustez, horren arrazoia, EAIEetan aurkitzen da. Gogoan izan behar dugu, horrelako organoa sortu zela bai eskumen penalak bai eskumen zibilak epaitegi berak izateko eta horrela, bigarren mailako biktimizazioa ekiditeko. Ordea, arazoa da EAIE bezalako organo bat (zigor eremuan kokatuta dagoena) sortzeak bi orden jurisdikzionalen artean zegoen lotura hori apurtu

duela, epaitegi horrek BA eta horri loturiko demanda zibila eramaten dituen heinean eta prozesu horren barne orden jurisdikzional zibilak parte hartzen ez duen heinean. Honekin bat, ni ez nago esaten EAIEak kendu behar direnik, bakarrik adierazi nahi dut bi ordenen arteko komunikazioa mantendu behar dela, nahiz eta guztia EAIEk edo horren eskumena duen Instrukzioko Epaitegiak ebatzi. Horregatik, lanean EAIEk eta Lehen Instantziako Epaitegiek duten eskumen-gatazkak aztertzea pentsatu dut, jakiteko nola komunikatzen diren bi orden jurisdikzionalak. Kasu honetan, une orotan adierazten da *“prozedura zibilaren gaineko ardura duen epaile batek genero indarkeriako egintza baten berri duenean”* edo *“zigor-arloko auzi baten gaineko ardura duen emakumearen aurkako indarkeriaren epaile batek jakiten badu”* esaldi hauek. **Hemen galdera ez da zer egin behar duten, nola konturatu ahal diren beste prozesu bat dagoela baizik.** Jordiren kasuarekin, agerian gelditu da bi orden jurisdikzionalen artean ez dagoela inolako komunikaziorik. Alderdietako batek ez badu ezer esaten beste prozedura bat dagoela, ez dira konturatzen. Jordirena ezin da berriz gertatu eta horregatik, bi proposamen ditut: alde batetik, alerta-, edo kontsulta-sistema bat ezartzea, informazio hori denbora errealean organo judizial eskudunetara iritsiz eta horrela, nahasterik eta deskoordinaziorik egon ez dadin; bestetik, leihatila bakarra eratzea, horrela saihestu egingo litzateke epaitegiz epaitegi saltoka ibiltzea zerbaitengatik salaketa jartzen dugun bakoitzean.

3.- Ez da nahikoa legean zerbait agertzea, gero praktikan ez bada gauzatzen. Horrelako egoera ematen da bisita-, komunikazio- eta egonaldi- erregimenen etendurarekin. Beraz, ziurgabetasun juridiko handia sortzen duten hainbat irizpide dituen gai baten aurrean gaude. Alde batetik, ekainaren 2ko 8/2021 Legeak planteatutako erreformak KZren 94. artikulua aldatzen du, eta arau orokor gisa ezartzen du bisita-erregimenaren etendura, adingabearen interes gorena kontuan hartuta izan ezik, bisita-, komunikazio- eta egonaldi- erregimen horren mantenimendua hobea dela justifikatuz. Bestalde, ekainaren 4ko 8/2021 Legeak PKLren 544 ter 7 artikulua aldatzen du, eta arau orokor gisa ezartzen du bisita-erregimena adingabeak ikusten duenean, bizi duenean edo ikusten duenean bakarrik etetea. Kasu horretan, ez da baloratuko haurraren interes gorena. Egia da bietan bisita-erregimena etetea jartzen duela arau orokor gisa, baina, errealitatean, bisiten erregimena mantetzearen edo sortzearen alde egin ohi da, nahiz eta Legean salbuespenezko neurri gisa agertu. Nire ustez, gainditu egin behar da tratu txarrak

ematen dituenak aita txarra izan behar ez duela dioen ideia estereotipatua, eta haur eta nerabeentzat hobe dela guraso bortitzarekin harremana izatea, harengandik aldentuta egotea baino. Gogorarazi nahi dut 2013tik aurrera 47 adingabe hil direla indarkeria bikarioaren ondorioz, eta indarkeria horrek ahalik eta kalte handiena egin nahi diela emakumeei seme-alaben hilketaren bidez. Horien artean dago Jordi. Lan honekin buruan neuzkan galdera batzuek erantzuna aurkitzeko aukera izan dut.

Haurraren hilketaren Suecan, "Sistemaren akats nabarmena"

V. BIBLIOGRAFIA EUSKARRIAK

1.- ARAUBIDEA

Nazioarteko eta Europako Araubidea:

Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Nazio Batuen 1993ko abenduaren 20ko Adierazpenarena (Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Ebazpena).

Emakumeari Buruzko Laugarren Munduko Konferentziaren 1995eko urriaren 17ko Txostena (A/CONF. 177/20).

Emakumea Indarkeriaren Aurka Babesteari buruzko Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2002ko apirilaren 30ean onartutako Gomendioa (Rec (2002) 5).

Emakumeen Aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeari eta Borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmena, *EAO* 137. zk., 2014ko ekainaren 6koa.

Espainiako Araubidea:

Espainiako Konstituzioa, *EAO* 313. zk., 1978ko abenduaren 29koa.

Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duen 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, *EAO* 260. zk., 1882ko irailaren 17koa.

Kode Zibila argitaratzen duen 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, *EAO* 206 zk., 1889ko uztailaren 25koa.

Uztailaren 1eko Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, *EAO* 157.zk., 1985ko uzatilaren 2koa.

Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 LO, *EAO* 281. zk., 1995eko azaroaren 24koa.

Prozedura Zibilari buruzko 2000ko urtarrilaren 7ko 2/2000 Legea, *EAO* 7. zk., 2000ko urtarrilaren 8koa.

Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legea, *EAO* 183. zk., 2003ko abuztuaren 1koa.

Protocolo para la implantación de la Orden de Protección de las víctimas de violencia doméstica.

Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko sortutako Orden Jurisdikzionalen Arteko Koordinaziorako Protokoloa, 2003.

Babes Aginduarekin zerikusia duten prozesuko gai batzuei buruzko abenduaren 18ko EFNren 3/2003 Zirkularra (FIS-C-2003-00003)

Genero Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 LO, *EAO* 313. zk., 2004ko abenduaren 29koa.

GIAOOBENLO aplikatzeko irizpideei buruzko uztailaren 18ko EFNren 4/2005 Zirkularra (LEG 2005\9734).

Emakumearen Aurkako Indarkeriari dagokionez, Fiskaltzaren Jarduera-Unitate Espezializaturako Irizpideei buruzko azaroaren 2ko EFNren 6/2011 Zirkularra (FIS-C-2011-00006)

Pertsonen Sexuari Buruzko Aipamenaren Erregistro-Zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 LO, *EAO* 65. zk., 2007ko martxoaren 16koa.

Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legea, *EAO* 101. zk., 2015eko apirilaren 28koa.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 LO, *EAO* 175. zk., 2015eko uztailaren 23koa.

Desgaitasuna duten Pertsonen beren Gaitasun Juridikoa baliatuz Laguntzeko Legeria Zibila eta Prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legea, *EAO* 132. zk., 2021eko ekainaren 3koa.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurka Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, *EAO* 134.zk., 2021ko ekainaren 5koa.

EAEko Araudia:

Euskal Autonomia Erkidegoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, *EHAA* 42. zk., 2005eko martxoaren 2koa.

Euskal Autonomia Erkidegoa. Transexualak Genero-Identitateagatik Ez Baztertzeari eta Haien Eskubideak Aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea, *EHAA* 132. zk., 2012ko uztailaren 6koa.

Gurasoen Banantze edo Haustura Kasuetako Familia Harremanei buruzko ekainaren 30ko 7/2015 Legea, *EHAA* 129.zk., 2015ko uztailaren 10koa.

2.- DOKTRINA ETA WEB ORRIAK

ARANDA RODRIGUEZ, Remedios: “Medidas civiles contra la violencia de género en la L.O. 1/2004”, *Revista Jurídica de la Universidad Autónoma de Madrid*, 17. zk., 2008, 9-33. orr.

BERMÚDEZ REQUENA, Juan Manuel: “La orden de protección a favor de las víctimas. de violencia de género en la práctica de los Tribunales”, *Actualidad Jurídica Aranzadi*, 734/2007 zk., 2007.

BARONA VILAR, Silvia: “Medidas cautelares específicas”, MONTERO AROCA, Juan (koord.), GÓMEZ COLOMER, Juan Luis (koord.) eta BARONA VILAR, Silvia (koord.), *Derecho jurisdiccional III. Procesal penal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2019

BROX SÁENZ DE LA CALZADA, Alicia Ginebra: “El Convenio de Estambul en Francia y en España: tareas pendientes”, *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 43. zk., 2020, 46-64.orr

CANTURIENSE SANTOS, Ana: “Conflictos de competencia objetiva: Juego de Tronos entre los juzgados civiles y los de violencia contra la mujer”, *Editorial jurídica Sepin*, 2021. Eskuragarri hemen: <https://blog.sepin.es/2021/05/juzgados-civiles-y-violencia-contra-la-mujer/>

DE HOYOS SANCHO, Montserrat.:“La orden de protección de las víctimas de violencia de género” DE HOYOS, Montserrat (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: Aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Valladolid, Lex Nova, 2009.

Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género: La Orden de Protección. Eskuragarri hemen:
<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/profesionalesInvestigacion/asistenciaSocial/recursos/orden/home.htm> [azken kontsulta: 2022/06/08]

- DELGADO MARTIN, Joaquín: “La Orden de Protección de la víctimas de violencia doméstica”, en Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, *Encuentros “Violencia doméstica*, Madril, Dijusa, 2004, 75-132. orr
- El Gobierno estudia tipificar el impago de pensiones como violencia de género, *el diario*, 2022. Eskuragarri hemen: https://www.eldiario.es/catalunya/gobierno-estudia-tipificar-impago-pensiones-violencia-genero_1_8769429.html
- ESPAINIAKO BOTERE JUDIZIALA, Comisión de seguimiento. Eskuragarri hemen; <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Comision-de-seguimiento/> [azken kontsulta: 2022/06/12]
- FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madril, 2021eko azaroaren 15 eta 16.
- FUENTES SORIANO, Olga: *El Enjuiciamiento de la violencia de género*, Madril, Iustel, 2009, 384 orrialde.
- GALDEANO SANTAMARÍA, Ana: *Medidas cautelares en violencia de género: servicio de guardia*, Fiscal Decana de Violencia de Género de Madrid, 2013.
- GALLEGO SÁNCHEZ, Gemma: “El Convenio de Estambul. Su incidencia en el sistema español de lucha frente a la violencia contra la mujer”, *el derecho.com*, 2015. Eskuragarri hemen: <https://elderecho.com/el-convenio-de-estambul-su-incidencia-en-el-sistema-espanol-de-lucha-frente-a-la-violencia-contra-la-mujer-2>
- GASCÓN INCHAUSTI, Fernando: “Tratamiento procesal de la competencia objetiva, juzgados de violencia sobre la mujer”, Aranzadi S.A.U, 2009.
- GIMENO REINOSO, Beatriz eta BARRIENTOS SILVA, Violeta: “Violencia de género versus violencia doméstica: La importancia de la especificidad”, *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, 2009, 1-19.orr
- GUTIERREZ DE PIÑERES BOTERO, Carolina, CORONEL, Elisa; eta PÉREZ, Carlos Andrés: “Revisión teórica del concepto de victimización secundaria”, *Liberabit*, ISSN 1729-4827, 15. Bolumena, 1. zk., 2009.
- GUTIÉRREZ ROMERO, Francisco Manuel: “Medidas judiciales de protección y seguridad de las víctimas: ¿Novedad o mera ordenación de las existentes en nuestra legislación procesal penal?”, *Diario la Ley*, 6716. zk., 2007

Guías Jurídicas: “Orden de Protección”, Grupo Wolters Kluwer-en argitaratua Eskuragarri hemen:

https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUNjExMztlUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoAHGzjSTUAAAA=WKE [azken kontsulta: 2022/06/08]

Guías Jurídicas, “Juzgados de Violencia sobre la Mujer”. Eskuragarri hemen:

https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAEAMtMSbF1jTAAAUNjQxNjtlUouLM_DxbIwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoALb0e4DUAAAA=WKE [azken kontsulta: 2022/06/07]

Igualdad urge a la justicia a revisar todas las visitas de padres maltratadores, *IGUALDAD*, 2022ko apirilaren 5ean. Eskuragarri hemen:

<https://www.epe.es/es/igualdad/20220405/menor-asesinado-padres-maltratadores-visitas-violencia-vicaria-violencia-machista-13472349>

Instituto Andaluz de la mujer, ¿Qué se entiende por Violencia Doméstica? Eskuragarri hemen: <https://www.juntadeandalucia.es/iamindex.php/1-violencia-de-genero/que-se-entiende-por-violencia-domestica> [azken kontsulta: 2022/05/15]

JIMÉNEZ PEÑA, Sergio: “Las relaciones análogas al matrimonio y su incidencia en menores de edad en los delitos de malos tratos en el ámbito familiar (violencia de género)”, *Derecho por la vida*, 2016.

JIMENO ARANGUREN, Roldán: “Foru Berriaren konpilazio- edo kodetze-prozesuaren ebaluazioa: zuzenbidearen doktrina eta praxia”, *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, ISSN 1699-5376, 13. zk., 2016, 9-55. orr.

Justicia activará alertas y pide cambios legales para evitar casos como Sueca, *LA RAZÓN*, 2022ko apirilaren 6an. Eskuragarri hemen:

<https://www.larazon.es/comunidad-valenciana/20220406/6b6ptjku6fattgdf5qz6in2de.html>

“La obligación de alimentar a los hijos menores es consecuencia de la filiación y la de alimentar a los hijos mayores es consecuencia de la situación de necesidad en la que se encuentren”. Eskuragarri hemen:

<https://patriciogonzalezabogados.com/pension-alimentos-hijos-menores/>

- LAURENZO COPELLO, Patricia: La violencia de género en la Ley Integral: valoración político-criminal, *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 07-08. zk, 2005.
- Los derechos paso a paso: Transexualidad, Justizia.eus, 2019. Eskuragarri hemen: <https://www.justizia.eus/noticias/los-derechos-paso-a-paso-v-transexualidad-3>
- LÓPEZ TRUJILLO, Noemi: “Menores asesinados por violencia vicaria: de 47 víctimas, en 12 casos había denuncia previa”, Newtral, 2022. Eskuragarri hemen: <https://www.newtral.es/menores-asesinados-violencia-vicaria-denuncia-previa/20220405/>
- MAGARIÑOS YÁNEZ, José Alberto: *El derecho contra la violencia de género*, Madril, Montecorvo, 2007.
- MAGRO SERVET, Vicente: “Inexistencia de violencia de género en las agresiones en parejas homosexuales”, *La Ley Penal: Revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, ISSN 1697-5758, 138. zk., 2019.
- MARÍ FARINOS, Enrique: “La lucha contra la violencia de género en el derecho comparado, con especial referencia a Europa”, *Diario La Ley*, 9128. zk., 2018.
- MAQUEDA ABREU, María Luisa: “La Violencia de Género: Entre el concepto jurídico y la realidad social”, *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, 08-02. zk., 2006, 1-13. orr.
- MARUGÁN PINTOS, Begoña eta VEGA SOLÍS, Cristina: “Gobernar la violencia: apuntes para un análisis de la rearticulación del patriarcado”, *Revista Política y Sociedad*, 2001, 415-435.orr
- MELERO BOSH, Lourdes Verónica: “Los juzgados de violencia sobre la mujer”, *Universidad de La Laguna*, 2005, 35-52. orr
- MONTALBAN HUERTAS, Inmaculada: “Violencia y género. La violencia doméstica como problema actual, estructura y público para el derecho”, *Encuentros “Violencia doméstica”*, Madril, Dijusa, 2004, 33-72. orr
- MONTALBAN HUERTAS, Inmaculada: “Contra la violencia sobre la mujer”, *Revista El País*, 2008.
- MÚRTULA LAFUENTE, Virginia: *El interés superior del menor y las medidas civiles a adoptar en supuestos de violencia de género*, Madril, Dykinson, 2016.

- NEVADO MONTERO, Juan José: El ejercicio de la patria potestad en situaciones de no convivencia de los progenitores, Barcelona, Bosh, 2021.
- PADILLA CONSUEGRA, Rocio: “La violencia en el interior de las relaciones lésbicas en los márgenes de la agenda política feminista del estado español: el estatuto subalterno de las mujeres lesbianas en la representación discursiva hegemónica de las violencias de género”, *Lecturas de nuestro tiempo*, IV. zk., 2019, 13-21.
- PERAL LÓPEZ, María del Carmen: *Madres maltratadas: Violencia vicaria sobre hijas e hijos*, Universidad de Málaga (UMA), 2018.
- PERAMATO MARTÍN, Teresa: “La Violencia de Género como manifestación de desigualdad. Ley Integral” *Curso: mujer, igualdad y derecho*, Centro de estudios jurídicos, Madril, 2007, 1-30.orr
- PÉREZ VALLEJO, Ana Maria: “Custodia compartida y violencia de género”, *Revista de Estudios de las Mujeres*, 4. Bolumena, 2016.
- ORTEGA CALDERÓN, Juan Luis: “La suspensión del régimen de visitas, comunicaciones y estancias al amparo del artículo 94 Código Civil tras la reforma por Ley 8/21 de 2 de junio”, *Diario La Ley*, 9892. zk, 2021
- SÁNCHEZ RIVERA, Pedro: “La orden de protección en violencia de género”, Fernández González, Maria Begoña (koord.), *Tratado sobre la igualdad jurídica y social de la mujer en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2019.
- SEISDEDOS MUIÑO, Ana: “La atribución del uso de la vivienda familiar en caso de ruptura de los progenitores: análisis de la ley 7/2015, del parlamento vasco”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 3 bis zk., 2015.
- TARDÓN OLMOS, María: La interpretación de la análoga relación de afectividad, “aún sin convivencia”. III Congreso del Observatorio contra la Violencia Doméstica y de Género. Aplicación jurisdiccional, 2009.
- TORRES REVIRIEGO, Maria Rosario: “La Orden de Protección para víctimas de violencia de género”, NIETO-MORALES, Concepción (Zuz.), *La crisis en las familias, infancia y juventud en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2015, 125-146. orr
- UPV/EHU-IVAP.: *Marco normativo, derechos de las mujeres víctimas, servicios y recursos*, 2022
- VALIÑO CES, Almudena: “La orden de protección: estudio de las medidas para las víctimas de violencia doméstica y de género en el marco del artículo 544 ter de la

Ley de Enjuiciamiento Criminal”, *Revista de derecho y proceso penal*, 56. zk., 2019

VENTURA FRANCH, Asunción: “El CE y los sujetos de la violencia de género. El cuestionamiento de la violencia doméstica como categoría jurídica”, UNED. *Revista de Derecho Político*, 97. zk., 2016, 179-208.orr

Violencia vicaria: "Que no se comuniquen los juzgados nos perjudica y 'revictimiza' a nosotras y a nuestros hijos", *HERALDO*, 2022ko apiliaren 5ean. Eskuragarri hemen: <https://www.heraldo.es/noticias/aragon/2022/04/05/violencia-vicaria-la-no-comunicacion-entre-juzgados-perjudica-y-revictimiza-es-a-nosotras-y-a-nuestros-hijos-1565246.html>

VITERI ZUVIA, Ibon: “La trascendencia de la violencia de género en los procesos matrimoniales de separación y divorcio”, *Revista de Derecho de Familia*, 60.zk., 2013, 15-19.orr.

YUGUEROS GARCÍA, Antonio Jesús: “La violencia contra las mujeres: conceptos y causas”, *Revista Barataria Castellano-Manchega de Ciencias sociales*, 18. zk., 2014, 147-159. orr

3.- JURISPRUDENTZIA

Konstituzio Auzitegiko Epaiak:

KAE 16372004, urriaren 4koa, *EAO* 270 zk., 2004ko azaroaren 9koa (BOE-T-2004-19063)

KAE 59/2008, maiatzaren 14koa, *EAO* 135. zk., 2008ko ekainaren 4koa (RTC 2008\59)

KAE 111/2008, irailaren 23koa, *EAO* 245. zk., 2008ko urriaren 10ekoa (BOE-T-2008-16300)

Auzitegi Goreneko Autoak eta Epaiak:

AGE 2007ko irailaren 17koa (ROJ: STS 5818/2007)

AGE 2009ko azaroaren 4koa (RJ 2009\589)

AGE 2011ko abenduaren 14koa (ROJ: STS 9353/2011)

AGE 2011ko abenduaren 23koa (RJ 2012\1932)

AGE 2012ko martxoaren 6koa (RJ 2012\3794)
AGE 2013ko apirilaren 29koa (RJ 2013\3269)
AGE 2014ko apirilaren 25koa (RJ 2014\2651)
AGA 2015ko maiatzaren 6koa (JUR 2015\141666).
AGE 2017ko urriaren 25koa (RJ 2017\4785)
AGA 2018ko apirilaren 29koa (Roj: ATS 4772/2018)
AGA 2019ko martxoaren 26koa (Roj: ATS 4446/2019)

Probintzia Auzitegiko Autoak eta Epaiak:

Madrilgo PAA 2004ko abenduaren 2koa (JUR 2005\256547)
Madrilgo PAA 2005ko apirilaren 1koa (JUR 2005\246066)
Madrilgo PAA 2005ko apirilaren 27koa (JUR 2005\ 266374).
Granadako PAA 2005eko uztailaren 4koa (JUR 2006\204066)
Bizkaiko PAE 2006ko apirilaren 4koa (JUR 2006\ 184556)
Albaceteko PAE 2006ko urriaren 30ekoa (ROJ: SAP AB 751/2006)
Madrilgo PAE 2007ko ekainak 11koa (ROJ: SAP M 8424/2007)
Bizkaiko PAA 2010eko martxoaren 8koa (JUR 399278).
Castelloneko PAE 2012ko abenduaren 14koa (JUR 2013\121252)
Tenerifeko PAE 2014ko azaroaren 28koa (ROJ: SAP TF 2307/2014)
Madrilgo PAE 2015ko martxoaren 20koa (JUR 2015\ 108490)
Madrilgo PAA 2021eko urriaren 13koa (ROJ: AAP M 4712/2021)

Lehen Auzialdiko eta Instzukzioako Epaitegietako autoak (GrAL honen oinarri):

Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiko Autoa, 2020eko abenduaren 21koa (486/2020 Aurretiazko diligentziak)
Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4. Zenbakiko Epaitegiko 91/2021 Autoa, 2021eko maiatzaren 6koa.